

mapandreak

plazaratu, maparatu

Donostiako kale-izendegian emakumeen izenak dituzten espazioen mapa ilustratua.



Mapandreak Gida Didaktikoa

GIDA DIDAKTIKOA

Kredituak

MAPANDREAK GIDA DIDAKTIKOA

Donostiako Udaleko Hezkuntza Sailak argitaratua.
Donostian, 2025 irailean.
LG SS XXXX-XXXX

Egilea: Ane Chueca Uribe

Diseinua eta maketazioa: Ane Chueca Uribe

Emakumeen ilustrazioak: Laura Matesanz de la Maza

Eskerrak: Ane, Aitziber eta Leireri.

Material didaktiko hau Creative Commons CC BY-NC-ND 4.0 lizentziarekin dago.

Informazio gehiago: creativecommons.org

Eskuragarri: www.donostia.eus/rsc/Hezkuntza/Mapandreak.pdf // linktr.ee/mapandreak



Aurkibidea

Mapandreak. PROIEKTUA	6
Sarrera: Mapandreak. Plazaratu, maparatu.	6
Justifikapena. Genero-ikuspegia Hirigintzan.	10
Mapandreak Mapa Ilustratua.	14
Kale-izendegiko emakumeak: biografiak.	18
Mapandreak. GIDA DIDAKTIKOA	30
Zertarako gida hau?	32
Jarduerak.	36
#1. Emakumeen presentzia hirian.	38
#1.1. Berdintasuna al dago kale-izendegietan? Datuak aztertu.	40
#1.2. Espazio publikoaren erabilera eta emakumeen ikusgarritasuna. Hiria eta eskola.	42
#1.3 - Zer dakizu zure hiri eta auzoko kale-izendegiko emakumeei buruz? Ibilbideak diseinatu.	46
#2. Zenbat emakume, hainbat ogibide.	50
#2.1. Emakume langileen aztarnak: hiriko ondarean sakonduz.	52
#2.2. Hezkuntza eta hizkuntza.	64
#3. Memoria historikoa bizirik, arteen bidez.	74
#3.1. Emakumeen memoria eta presentzia mantentzeko arte adierazpenak hirian.	76
Erreferentziak eta bibliografia.	86
Eranskinak:	90
I Eranskina: #1.3. Jarduera Auzoko planoak.	92
II Eranskina: #2.1. Jarduera Galdera-erantzunak.	116
III Eranskina: #2.2. Jarduera Galdera-erantzunak.	118

mapandreak

PROIEKTUA



Sarrera: Mapandreak plazaratu, maparatu.

Mapandreak proiektua Donostiako hiriko kale-izendegian oraindik ere gutxiengoa diren emakumeak ikustarazteko sortu da, emakumeok plazaratzeko, maparatzeko. Mapa ilustratu honek, espazio publiko [kale, plaza, parke], eskultura, horma-irudi eta bestelakoak jasotzen ditu, hirian ere emakumeen espazioak aldarrikatuz, eta ordezkagarritasun eta berdintasunaren bidean lanean jarraitzearen beharra gogoraraziz. Ikuspegi feminista batetik, emakumeen presentziaren gabeziari buruzko gogoeta eta aldarrikapena egin nahi du.


Aurrekariak

Donostiako Udaleko Berdintasun Atalak, “[Emakumeon Donostia](#)” izeneko mapa digitala plazaratu zuen 2019 urtean, Emakumeak eta Hiria Foroarekin, Emakumeen Etxea Elkartearekin eta EHUko Emakume eta Gizonen Berdintasunaren gaineko Masterrarekin elkarlanean. Mapa horren helburua, historia berrikusi eta emakumeen

inbisibilizazioarekin amaitzen laguntzea da, emakumeek historian zehar egindako lana aitortuz. Mapandreak mapa ilustratua, lan horren jarraipen eta osagarri gisa jaiotzen 2023ko martxoan.

Emakumeak eta Hiria Foroa emakumeen herri partaidetzarako taldea da, 1998an hirigintza eta generoari buruzko jardunaldi batzuen ondoren sortua. Ekimen honen helburu nagusia da hiria aztertzea eta hausnartzea genero ikuspegitik, kontutan izanik emakumeen beharrak historikoki ez direla kontutan hartu hirigintza-plangintzan, hain zuzen ere beraiek pairatzen dituztenean neurri handi batean hiri-politiken ondorioak. Foroak, beste hainbat ekarpenen artean, Donostiako kale izendegian txertatzeko emakumeen izenen proposamenak egiten dizkio Donostiako Udalari.

Ezagutu proiektua!



@mapandreak


linktr.ee/mapandreak



mapandreak
plazaratu, maparatu.


mapandreak Donostiako hiriko kale-izendegian oraindik ere gutxiengoa diren emakumeak ikustarazteko sortu da, emakumeok plazaratzeko, maparatzeko. Espazio publiko (kale, plaza, parke), eskultura, horma-irudi eta bestelakoak jasotzen ditu, hiria emakumeona ere badela aldarrikatuz, eta ordezkagarritasun eta berdintasunaren bidean lanean jarraitzearen beharra gogoraraziz. Emakumeak eta Hiria Foroa egindako lanaren jarraipen gisa jaiotzen da.

[mapa ilustratua](#) [mapa digitala](#) [ilustrazio eta biografiak](#)



Donostia

Mapa honetan, Donostiako kale-izendegian emakume izena duten kale, plaza, parke edo lorategi, eraikin, eskultura, horma-irudi eta bestelakoak aurki ditzakezu.



Introducción: Mapandreak plazaratu, maparatu.

El proyecto Mapandreak nace con el objetivo de visibilizar y hacer públicas a las mujeres que siguen siendo minoritarias en el callejero de la ciudad de Donostia, para sacarlas a la plaza, colocarlas en el mapa. Este mapa ilustrado recoge espacios públicos [calles, plazas, parques], esculturas, murales, etc., reivindicando espacios de mujeres también en la ciudad, y recordando la necesidad de seguir trabajando en el camino de la representatividad y la igualdad. Desde una perspectiva feminista pretende reflexionar y reivindicar la ausencia de la presencia de las mujeres en la ciudad.


Antecedentes

El Departamento de Igualdad del Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián, en colaboración con el Foro Mujeres y Ciudad, la Asociación Casa de las Mujeres y el Master en Igualdad de Mujeres y Hombres de la EHU, publicó en 2019 el mapa digital “Emakumeon Donostia”. El objetivo de

este mapa es revisar la historia y ayudar a acabar con la invisibilización de las mujeres, reconociendo su labor a lo largo de la historia. El mapa ilustrado Mapandreak nace en marzo de 2023 como continuación y complemento de este trabajo.


El Foro Mujeres y Ciudad es un espacio para la participación ciudadana de las mujeres surgido a partir de unos seminarios sobre el urbanismo con enfoque de género que se realizaron en 1998. El objetivo principal de esta iniciativa es observar y reflexionar la ciudad desde la perspectiva de género, teniendo en cuenta que las necesidades de las mujeres no han formado parte de la planificación urbanística, cuando son precisamente quienes sufren de forma más intensa las consecuencias de las políticas urbanísticas. El Foro, entre otras aportaciones, propone al Ayuntamiento nombres de mujeres para su inclusión en el callejero donostiarra.

¡Conoce el proyecto!



@mapandreak


linktr.ee/mapandreak



mapandreak
plazaratu, maparatu.


mapandreak Donostiako hiriko kale-izendegian oraindik ere gutxiengoa diren emakumeak ikusgarritzeko sortu da, emakumeek plazaratzeko, maparatzeko. Espazio publiko (kale, plaza, parke), eskultura, horma-irudi eta bestelakoak jasotzen ditu, hiria emakumeona ere badela aldarrikatuz, eta ordezkaritasun eta berdintasunaren bidean lanean jarraitzearen beharra gogoraraziz. Emakumeak eta Hiria Foroak egindako lanaren jarraipen gisa jaio da.

mapa ilustratua mapa digitala ilustrazio eta biografak



Donostia

Mapa honetan, Donostiako kale-izendegian emakume izena duten kale, plaza, parke edo lorategi, eraikin, eskultura, horma-irudi eta bestelakoak aurki ditzakezu.



mapandreak

Justifikapena: Genero-ikuspegia Hirigintzan.

Genero-ikuspegia barne hartzen duen Hirigintzak¹ ondorengo dio **hiriko ordezkagarritasuna** eta **hiri-seinaleztapenari** dagokionez:

Ordezkarritasuna lortuko da, **komunitate osoaren ikusgarritasun erreala eta sinbolikoa aitortzen direnean**, hau da, hirian kolektibo anitz baten presentzia dagoenean. Memoria, gizarte- eta kultura-ondarea berdintasunean balioestea eta pertsonen hiriko erabakietan parte hartzea ezinbestekoa da honetan. Gaur egungo edo iraganeko gizarteko parte diren edo izan diren pertsonen merezi duten ordezkagarritasuna eskainiz, **imaginario kolektiboan** dagokien lekua ematen zaie.

Teresa del Valle antropologoak **espazio publikoa eta memoria kolektiboaren** arteko harremanaren garrantzia² azpimarratzen du. Memoria da gizarte batek datozen belaunaldi transmititu nahi diena; **kale-izendegiak, eraikinen izenak, eskulturak eta bestelako arte adierazpenak hiri batean oso**

garrantzitsuak dira memoria sortzen dutelako, eta gizarte batek zer eta nola gogoratu nahi duen adierazten dutelako. Arlo horretan, emakumeek historian izandako papera ahaztu ohi da.

Hiri-seinaleztapenari dagokionez, seinaleztatzeko modu ohikoek eta tradizionalak, ikonografia jakin batzuk erabiltzen dituzte, askotan berdintasunezkoak ez direnak. **Seinaleztatzeko modu hauek eragin handia dute genero-estereotipoen eta emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunen betikotzean**. Era berean, espazio publikoetan oraindik ere irudi estereotipatu edo sexistak eta hizkuntza ez-inklusiboa dituzten iragarkiak edo publizitate elementuak aurki daitezke, eta horiek ez dute laguntzen hiri berdinzaleago bat sortzen.


Testuinguru honetan, beraz, ezinbestekoa da ondorengo arloetan lanean jarraitzea:

1 | Col·lectiu Punt 6. (2019). Urbanismo feminista: Por una transformación radical de los espacios de vida. Virus Editorial.
2 | Del Valle, T. (1991). Las mujeres en la ciudad: Estudio aplicado de Donostia. Emakumeari Buruzko Ikerketa Mintegia, Euskal Herriko Unibertsitatea.

Komunitatearen memoria aitortza: komunitatearen memoria auzoko ondare sozial eta kultural gisa mantentzen duten espazioak edo elementuak txertatzea kaleetan eta espazio publikoan. Era berean, zaintza lanak eta lan erreproduktiboaren balioa erakusten duten elementuen presentzia bermatzea.

Presentzia hirian: kale-izendegian ekitate bermatzea emakume eta gizonen artean. Bereziki lorpen profesionalengatik, sozialengatik edo pertsonalengatik garrantzitsuak diren emakumeen (eta batez ere tokikoak direnen) izenak dituzten kale, plaza, parke, eraikinen... presentzia bermatzea.

Hiri-seinaleztapen ez diskriminatzailea: ikonografia eta lengoia bisual ez diskriminatzailea erabiltzea. Halaber, espazio publikoetan ikusgai dauden publizitate-elementu, kartel edo iragarkietan irudi diskriminatzaileak ekiditea (genero, sexu, adin zein jatorriari dagokionez).

 [Zer da Hirigintza Feminista? Col·lectiu Punt 6-en eskutik.](#)



¿Qué es el urbanismo feminista? - Col·lectiu Punt 6.

 [Sexistak al dira gure hiriak? Hirigintza Feminista.](#)



¿Sexistas nuestras ciudades? - Miles de Ciudades

Justificación:

Urbanismo con Perspectiva de Género.

El Urbanismo con Perspectiva de Género¹ establece lo siguiente en relación a la **representatividad** y la **señalización urbana**:

La **representatividad** se alcanzará cuando se reconozca la **visibilidad real y simbólica de toda la comunidad**, es decir, cuando exista la presencia de una pluralidad de colectivos en la ciudad. Valorar la memoria, el patrimonio social y cultural en igualdad, así como la participación de las personas en las decisiones urbanas, resulta imprescindible en este proceso. Al ofrecer a las personas que forman o han formado parte de la sociedad actual o pasada la representatividad que merecen, se les otorga el lugar que les corresponde en el **imaginario colectivo**.

La antropóloga Teresa del Valle subraya la importancia² de la relación entre el **espacio público** y la **memoria colectiva**. La memoria es aquello que una sociedad desea transmitir a las generaciones futuras; **el callejero, los nombres de los edificios, las esculturas y otras manifesta-**

ciones artísticas son muy relevantes en una ciudad porque generan memoria y expresan qué y cómo una sociedad quiere recordar. En este ámbito, el papel que han desempeñado las mujeres a lo largo de la historia suele quedar olvidado.

En cuanto a la **señalización urbana**, las formas más habituales y tradicionales de señalar utilizan determinadas iconografías, que a menudo no son igualitarias. **Estas formas de señalización influyen de manera significativa en la perpetuación de estereotipos de género y en las desigualdades entre mujeres y hombres**. Asimismo, en los espacios públicos todavía pueden encontrarse anuncios o elementos publicitarios con imágenes estereotipadas o sexistas y con un lenguaje no inclusivo, que no contribuyen a la construcción de una ciudad más igualitaria.

En este contexto, por tanto, resulta imprescindible seguir trabajando en los siguientes ámbitos:

Reconocimiento de la memoria de la comunidad: incorporar en las calles y en el espacio público espacios o elementos que conserven la memoria de la comunidad como patrimonio social y cultural del barrio. Asimismo, garantizar la presencia de elementos que visibilicen los trabajos de cuidados y el valor del trabajo reproductivo.

Presencia en la ciudad: garantizar la equidad entre mujeres y hombres **en el callejero**. Asegurar especialmente la presencia de calles, plazas, parques, edificios... que lleven nombres de mujeres relevantes por sus logros profesionales, sociales o personales (y, sobre todo, de carácter local).

Señalización urbana no discriminatoria: utilizar iconografía y lenguaje visual no discriminatorios. Del mismo modo, evitar imágenes discriminatorias (por razón de género, sexo, edad u origen) en los elementos publicitarios, carteles o anuncios visibles en los espacios públicos.

¿Qué es el urbanismo feminista? Por elCol-lectiu Punt 6



¿Qué es el urbanismo feminista? - Col-lectiu Punt 6.

¿Sexistas nuestras ciudades? Urbanismo Feminista



¿Sexistas nuestras ciudades? - Miles de Ciudades

1 | Col-lectiu Punt 6. (2019). Urbanismo feminista: Por una transformación radical de los espacios de vida. Virus Editorial.
2 | Del Valle, T. (1991). Las mujeres en la ciudad: Estudio aplicado de Donostia. Emakumeari Buruzko Ikerketa Mintegia, Euskal Herriko Unibertsitatea.

mapandreak proiektua Donostako hiriko kale-tzengotian oraindik ere gurengoa diren emakumeak ikusgarritzeko sortu da. emakumeak plazazatuzko, maparatzeko, Espazio Publiko Kale, plaza, parkel, eskultura, horma-irudi eta besteak jasotzen ditu, hiritik emakumea ere badela adierazteko, eta ordezkaritza eta berdintasunaren bitartean lanetan jarraitzearen beharra gogoratuz. Emakumea eta Hiri Foroak egindako lanaren jarraitpena gisa jaito da. Donostako Udaleko Gazteria sailaren Martxup ekinena bultzatuta.

idea-diseinua | Ane Chueca Uria
 ilustrazioak | @lili_eme_draws
 eskerrak | @ainhoa_garciah
 Berdintasun Bulegoa
 Emakumeak eta Hiri Foroa



mapandreak

plazaratu, maparatu



- 01 ● ▲ Elbira Zipitria
- 02 ● ● Resines eta Oloriz
- 03 ● ● Katalina Eleizegi
- 04 ● ● Clara Campoamor
- 05 ● ● Maria de Maeztu
- 06 ● ● Angela Figuera
- 07 ● ■ Mentxu Gal
- 08 ● ■ Andresa Portugal
- 09 ● Berreraikuntza
- 10 ● ● ■ Latsariak
- 11 ● Batelariak
- 12 ● ● Andre zigarrogileak
- 13 ● ● Andereñoak
- 14 ● ● Maria Dolores Goia
- 15 ● ● Gladys del Estal

- 16 ● ● Ignacia Zabalo
- 17 ● ■ Dolores Ibaruri
- 18 ● ■ Maritxu Guler
- 19 ● ● Hiru Damatxoak
- 20 ● Anna Frank [zuhaitza]
- 21 ● ■ Damazelai
- 22 ● ● Narrika
- 23 ● Duala
- 24 ● ● Damen bateria
- 25 ● ● Gracia Olazabal
- 26 ● ● Isabel II
- 27 ● ● Katalina Erauso
- 28 ● ● Leire plaza
- 29 ● ● Maria Zambrano
- 30 ● ● Paloma Miranda

- 31 ● ■ Amaiur parkea
- 32 ● ● Beatriz Infanta
- 33 ● ● Cristina Infanta
- 34 ● ● Rosario Artola
- 35 ● ● Lourdes Iriondo
- 36 ● ● Simona Lajust
- 37 ● ● Maria Cristina
- 38 ● ■ Cristina-Enea
- 39 ● ● Maria Dolores Agirre
- 40 ● ● Benita Asas
- 41 ● ■ Sahara horma-irudia
- 42 ● ● Erregina erregeordea
- 43 ● ▲ Victoria Eugenia antzokia
- 44 ● ● Venus
- 45 ● ■ Karnele Esnal

- 46 ● ● Erizainak
- 47 ● ● Emakume dantzariak
- 48 ● ● Begoña Landaburu
- 49 ● ● Karnele Saint-Martin
- 50 ● ● Inessa Gax
- 51 ● ● Albreteko Joana
- 52 ● ● Bizenta Mogel
- 53 ● ■ Alice Gulick
- 54 ● ■ Amaia parkea

- 55 ● ● Concha Chaos
- 56 ● ● Felisa Martin Bravo
- 57 ● ● Maria Elena Arizmendi
- 58 ● ● Madalena Jauregiberri
- 59 ● ● Carmen Burgos · Colombina
- 60 ● ● Gloria Fuertes
- 61 ● ■ Marie Curie
- 62 ● ● Dulce María Loynaz
- 63 ● ● Elisabete Maiztegi

Biografia eta ilustrazioa atzealdean!



- [kalea] edo [plaza]
- [parkea] edo [lorategia]
- ▲ [eraikina]
- ▲ [eskultura]
- [horma-irudia]
- ▲ [zubia]
- ▼ [hilobia]

@mapandreak

Esanatu gurea

01 Elbira Zipitria

Zumaia, 1906 - Donostia, 1982
● [kalea]
▲ [eraikina]

Euskal pedagogo eta Eusko Ikaskuntzako kidea. Frankismo garaian ikastolen inspiratzaile eta bultzatzailea izan zen, euskararen alde eginez. Politika- eta kultur-militantzia ere aritu zen.



02 Resines eta Oloriz

// - //
Mar de Plata, 1894 - Donostia, 1988
● [plaza]

Donostiako Udaleko lehenengo emakume zinegotziak, eta estatu osoan kargu hori izan zuten lehenak. Resines Donostiako lehenengo emakume alkateordea izan zen (1929an), eta Gurutze Gorriko erizain.



10 Latsariak

● [plaza]
▲ [Dora Salazar-en eskultura]
■ [Eva Mena-ren horma-irudia]

Urumea ertzean leku desberdinetan, eta bereziki Loiola auzoan, latsatzea edo arropa garbitzea ohiko zeregina izan zen hainbat emakumerentzat.



11 Batelariak

● [plaza]

Batelariak itsasontzi eta txalupen jabeak ziren, Pasaiaiko badian alde batetik bestera aritzen zirenak, mendeetan zehar beren ontzietan bidaiarien eta merkantzien joan-etorriak erraztuz.

03 Katalina Eleizegi

Donostia, 1889 - Lizarra, 1963
● [kalea]



Euskal antzerkigilea, bere testuen bidez denboran zehar bidaiatzeko gaitasuna erakutsi zuen. Bere lan ezagunenak: Garbiñe, Loreti, Gaine, Yatsu eta Erausoko Kateriñe.

04 Clara Campoamor

Madril, 1888 - Lausanne, 1972
▲ [Dora Salazar-en eskultura]
● [plaza]

Idazle, politikari, feminista eta emakumeen eskubideen defendatzailea. Emakumeentzako boto unibertsala eta guztiontzako berdintasun-eskubideak lortzeko borrokatu zuen.



12 Andre zigarrogileak

● [plaza]

Donostiako tabako fabrika zaharreko emakume langileak omentzen dituen plaza. 1913an inauguratu eta 2003an itxi zen fabrika hiriko familia asko aritu ziren lanean. 1925ean, mila langile baino gehiago izan zituen, gehienak emakumeak.



13 Andereñoak

● [plaza]

Donostiako lehen ikasletoako emakume irakasleen lana balioan jartzeko helburuarekin izendaturiko plaza.

14 Maria Dolores Goia

Donostia, 1913 - 1986
● [plaza]

Euskara irakaslea Gerra Zibilaren aurreko garaian. Gerran zehar Ingalaterrara egin zuen alde haur errefuxiatuak zaintzeko. Donostiara itzultzean ikastola bat ireki zuen bere Groseko etxean.

05 Maria de Maeztu

Gasteiz, 1882 - Mar de Plata, 1948
● [kalea]

Irakaslea, pedagogoa -pedagogia modernoaren aitzindaria- eta humanista. Estatu mailako emakumeentzako unibertsitate-irakaskuntza sustatzeko lehen zentro ofiziala sortu zuen.

06 Angela Figuera

Bilbo, 1902 - Madril, 1984
● [plaza]

Poeta, itzultzaile eta irakasle errepublikarra. Batxilergoa ikasi zuen lehen emakumeetako bat. Bere lanean ama eta emakume ikuspegi batetik kontatzen du mundua, errebeldia feministaz eta idealizaziorik gabe.



07 Mentxu Gal

Irun, 1918 - Donostia, 2008
■ [lorategiak]

Margolaria. Paisaia eta erretratuak landu zituen, koloreagatik zuen erakarpena garatuz bertan. 1959an Pintura Sari Nazionala irabazi zuen lehen emakumea.

15 Gladys del Estal

Caracas, 1956 - Tuter, 1979
● [pasabidea] ▲ [eskultura]
■ [parkea, Gladysenea]

Donostian bizi izan zen txikitatik, informatikan lizentziatua eta Egiako Talde Ekologistako militantea. Euskal mugimendu ekologistaren ikur bihurtu zen, 23 urte zituela Tuteran egin zen manifestazio antinuklear eta antimilitarista batean guardia zibilak tiroz hil ondoren.



16 Ignacia Zabalo "Nor-nai"

Donostia, 1905 -artzelona, 1939
● [plaza]

Ilustratzailea, "Nor-nai" (edozein) ezizenaz ezagutua. Euskadiko XX. mendeko lehenengo emakume marrazkilaria profesionala. Agere aldizkarian eta Argia egutegian argitaratu zituen bere lanak. 1939. urtean hil zen, etxeko atondoan erori zen bonba baten ondorioz.



08 Arrain Saltzaileak - Andresa Portugal

Oiartzun, 1915 - Donostia, 2012
■ [horma-irudia]



Arrain saltzaile gisa aritu zen lanean Bretxako azokan, 95 urte bete arte. Oso ezaguna eta maitatua hirian, herritar merezimendu domina eman zion udalak 2012an.

09 Berreraikuntza

▲ [Dora Salazar-en eskultura]

1813ko Donostiako setioaren eta sutearen ondoren hiria eraiki zuen gizarte zibila irudikatzen duen emakumezko figura, buruan adreiluak dituen.



17 Dolores Ibarruri "La Pasionaria"

Gallarta, 1895 - Madril, 1989
■ [parkea]

Borrokalari sozial, politiko eta idazle feminista, bere bizitzan zehar langile klaseen eta emakumeen errekonozimendu soziala eta laborala bilatu zuen etengabe. "Pasionaria" izenez ezaguna, izengoiti horrekin sinatzen baitzituen bere artikulak.



18 Maritxu Guler

Izaba, 1912 - Donostia, 1993
■ [parkea]

Maritxu Erlanz Mainz, irakasle aritu zen Nafarroan Gerra Zibil garaian, parapsikologia ere ikasi zuelarik. 1952an Donostiako Uliako baserri batean kokatu zen "Uliako sorgin ona" ezizena hartuz. Hiru tarot sorta sortu zituen, bi euskal gai buruzkoak.




Kale-izendegiko emakumeak. Biografiak.

Kale-izendegiaren zerrenda:

[Donostiako Udala > Datu Irekiak > Katalogoa > Kale izendegia](#)

[Donostiako Udala > Hirigintza > Lurralde Informazioa atala > Kale izendegia](#)



* **Elbira Zipitria**
Zumaia, 1906 – Donostia, 1982

IRAKASLE ETA PEDAGOGOAK

Pedagogo gipuzkoarra, gerra ondorengo ikastola gehienek inspiratzaile eta bultzatzailea, pedagogi-metodo berri eta aurrerakoi baten sortzailea, helduen taldeetan euskara irakaslea eta artikulista.

[aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/zipitria-iratorza-elbira](#)
Aranburu Puente, Xabier [CC BY-SA-NC]



* **Carmen Resinez eta Josefina Oloriz**
// - // | Mar de Plata, 1894 – Donostia, 1988

POLITIKARIAK

Donostiako Udaleko lehenengo zinegotziak (Primo de Riveraren diktaduran zehar) eta Estatu osoan kargu hori izan zuten lehenak. Resines Donostiako lehenengo emakume alkateordea izan zen (1929an) eta Gurutze Gorriko presidente ere izan zen. Oloriz, Asamblea Nacional Consultiva delakoko kide izan zen.

[aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/eu/resines-carmen](#) | [wikipedia.org/wiki/Josefina_Oloriz](#)
Wikipedia komunitatea [CC BY-SA]



* **Katalina Eleizegi Maiz**
Donostia, 1889 – Lizarra, 1963

DRAMATURGOAK

Euskal antzerkigilea. Irakasle ikasketak egin zituen Burgosen baina euskal antzerkia elikatzen pasatu zuen bere bizitza, gerra aurretik Donostian (Gipuzkoa) eta gerraostean Lizarran (Nafarroa). Bere lan ezagunenak: Garbiñe, Loreti, Gaine, Yatsu eta Erausoko Kateriñe.

[aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/eu/eleizegi-maiz-katalina](#)
Álvarez Uria, Amaia [CC BY-SA-NC]



* **Clara Campoamor**
Madril, 1888 – Lausanne, 1972

POLITIKARIAK

Politikaria, abokatu, eta idazle feminista. Emakumeen eskubideen defendatzailea eta sufragio unibertsalaren bultzatzaile nagusia izan zen Espainian. Berari eta beste hainbat politikariri esker, 1931n emakumeen botoa Errepublikar Konstituzioan sartzea lortu zen. Espainiatik ihes egin behar izan zuen Gerra Zibilaren erruz, eta Suitzian hil zen erbesteratua.

[wikipedia.org/wiki/Clara_Campoamor](#)
Wikipedia komunitatea [CC BY-SA]



Maria de Maeztu

Gasteiz, 1882 – Mar de Plata, 1948

IRAKASLE ETA PEDAGOGOAK

Irakaslea, pedagogia modernoaren eta emakumearen askapenaren aitzindari Espainian. Estatu mailako emakumeentzako unibertsitate-irakaskuntza sustatzeko zentro ofiziala sortu zuen. "Feminista naiz; lotsatuko nintzateke ez izateaz, uste baitut pentsatzen duen emakume orok giza kulturaren lan osoan pertsona gisa laguntzeko gogoia sentitu behar duela."

aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/eu/maeztu-whitney-maria

Estornés Zubizarreta, Idoia. Arostegui, Agustín. [CC BY-SA-NC]



Angela Figuera

Bilbo, 1902 – Madril, 1984

OLERKARIAK

Poeta, itzultzaile eta irakasle errepublikarra. Batxilergoa ikasi zuen lehenengo emakumeetako bat, Filosofia eta Letretan lizentziatu zen. Institutu irakasle gisa egin zuen lan, Gerra Zibila amaitzerakoan, Errepublikaren jarraitzaile izateari ez uzteagatik zigor gisa, bere lana galdu zuen arte. Bere lanean ama eta emakume ikuspegi batetik kontaktzen du mundua, errebeldia feministaz eta idealizaziorik gabe.

aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/eu/figuera-aymerich-angela

Azaola Urigoitia, Lander. Maraña Sánchez, Félix. [CC BY-SA-NC]



Mentxu Gal

Irun, 1918 – Donostia, 2008

PINTOREAK

Margolaria. Paisaia eta, neurri txikiagoan, erretratu dira ospea eman zioten jeneroak, eta koloreagatik zuen erakarpen pertsonala garatzeko baliatu zituen. 1959. urtean Pintura Sari Nazionala irabazi zuen; emakume bati ematen zioten lehenengo aldian izan zen.

aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/eu/gal-orendain-menchu

Sagardia Sagardia, Angel [CC BY-SA-NC]



Andresa Portugal

Oiartzun, 1915 – Donostia, 2012

ARRAIN SALTZAILEAK

Arrain saltzailea, urte luzez aritu zen lanean Bretxako azokan. Beste emakume saltzaileek bezala, arraina garbitu eta salgai jartzen zuen egurrezko taula baten gainean. 70 urte baino gehiago aritu zen lanean, eta azokako azken arrain saltzailea izan zen. Oso ezaguna eta maitatua hirian, herritar merezimendu domina eman zion udalak 2012an.

wikipedia.org/wiki/Andresa_Portugal_Arozena

Wikipedia komunitatea [CC BY-SA]



Maria Dolores Goya

Donostia, 1913 – 1986

IRAKASLE ETA PEDAGOGOAK

Euskara irakaslea Gerra Zibilaren aurreko garaian. Zipitriarekin batera, ikastolen eta euskal eskolen zutabe garrantzitsua. 1937an, Gerra Zibil garaian, itsasontzian bidaia egin zuen Ingalaterrara Euskal Herriko 4.000 haurrekin batera. Donostiara itzuli zen 1941ean, eta 1951n ikastola bat ireki zuen Grosen, eta hezkuntza lanari ekin zion 1970era arte. Alabak 1975era arte mantendu zuen ikastola irekita.

aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/eu/goya-mendiola-maria-dolores

Auñamendi Eusko Entziklopedia [CC BY-SA-NC]



Gladys del Estal

Caracas, 1956 – Tuter, 1979

AKTIBISTA EKOLOGISTA

Donostian bizi izan zen txikitatik, informatikan lizentziatua eta Egiako Talde Ekologistako militantea. Euskal mugimendu ekologistaren ikur bihurtu zen, 23 urte zituela Tuteran egin zen manifestazio antinuklear eta antimilitarista batean guardia zibilak tiroz hil ondoren.

wikipedia.org/wiki/Gladys_del_Estal

Wikipedia komunitatea [CC BY-SA]



Ignacia Zabalo Ballarin "Nor-nai"

Donostia, 1905 – Bartzelona, 1939

KOMIKILARIAK

Ilustratzailea, "Nor-nai" (edozein) ezizenaz ezagutua. Euskadiko XX. mendeko lehenengo emakume marrazkilaria profesionala. Agere aldizkarian eta Argia egutegian argitaratu zituen bere lanak. 1939. urtean hil zen Bartzelonan, Gerra Zibilean, etxeko atondoan erori zen bomba baten ondorioz.

wikipedia.org/wiki/Ignacia_Zabalo

Wikipedia komunitatea [CC BY-SA]



Dolores Ibaruri "Pasionaria"

Gallarta, 1895 – Madril, 1989

POLITIKARIAK

Politikari, borrokalaria eta dazle feminista, langile klaseen eta emakumeen errekonozimendu soziala eta laborala bilatu zuen etengabe. Agrupación de Mujeres Antifascistas sortu zuen, Gorteetako diputatu eta presidenteorde izan zen Bigarren Errepublikan, Alderdi Komunistako idazkari nagusi eta presidente. Gerra zibilaren ostean erbesteratu zen, eta itzultzean, berriz ere diputatu izan zen Asturiasen.

aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/eu/ibaruri-gomez-dolores

Arozamena Ayala, Ainhoa [CC BY-SA-NC]



Maritxu Guler

Izaba, 1912 – Donostia, 1993

SORGINAK

Maritxu Erlanz Mainz irakasle aritu zen Nafarroan Gerra Zibil garaian. Ondoren, grafologia, kiromantzia, esoterismo eta psikoanaliari buruzko tratatuak irakurtzeari eta aztertzeari ekin zion. Hiru tarot karta sorta sortu zituen eta Fournier-ek egin zizkion, horietako bi euskal gaiei buruzkoak. 1952an Uliako baserri batean kokatu zen senarrarekin (abizenez Guler), "Uliako sorgin ona" ezizena hartuz.

aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/eu/erlanz-mainz-maritxu

Estornés Zubizarreta, Idoia ©



Anne Frank

Frankfurt, 1929 – Bergen-Belsen kontzentrazio esparrua, 1945

Anne Frank gazte judu bat izan zen, 1942-1944 bitartean Amsterdamgo etxe baten ganbaran ezkutuan bizi izan zena, familiarekin eta beste pertsona batzuekin batera, nazi okupazioaren garaian. Auschwitzera deportatu zuten eta 1945ean hil zen Bergen-Belsen zelaian. Bere egunerokoak mundu osoan humanitatearen eta askatasunaren aldeko mezua zabaldu du, eta holokaustoko biktimen oroigarri bihurtu da.

annefrank.org

anne frank house



Gracia Olazabal

AKTIBISMO ERLIJIOSOA

Erljioarekin loturiko emakume konprometitua. 1521 eta 1551 bitartean eraikitako Donostiako San Telmo komentuarien sortzailea eta zaindaria, bere senar Alonso de Idiaquezekin batera, Carlos I.aren idazkaria 1520tik. Bi fundatzaileen estatua etzanak dituzten hilobiak komentuko elizaren sarrera klaustralaren alboetan daude.

aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/eu/olazabal-gracia-de

Martínez Artola, Alberto [CC BY-SA-NC]



Isabel II

Madril, 1830 – Paris, 1904

MONARKIA ETA NOBLEZIA

Espainiako eta Nafarroako erregina izan zen 1833-1868 artean. Haren tronuratzak Lehen Karlistaldia piztu zuen. 1868ko La Gloriosa iraultzak tronutik kendu zuen; 1870ean bere seme Alfontso XII.aren alde abdikatu zuen. Donostia, Zarautz, Lekeitio... izan zituen oporleku.

aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/eu/isabel-i-de-navarra-ii-de-espana

Arozamena Ayala, Ainhoa [CC BY-SA-NC]



Katalina Erauso

Donostia, 1592 – Mexiko, 1650

HISTORIAKO PERTSONAIK

Katalina de Erauso y Pérez de Galarraga, donostiarra, "moja alférez" izenez ezaguna, gehienbat Indietan bizitako abenturazale ospetsua izan zen. Donostiako komentutik ihes egin eta gizonez mozarrotuta Espainiako armadan soldadu moduan jardun zuen Ameriketara, eta han hil zen XIX. mendearen hasieran.

aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/es/erauso-katalina

Estornés Zubizarreta, Idoia. Izaga Sagardía, Carmen [CC BY-SA-NC]



Maria Zambrano Alarcón

Malaga, 1904 – Madril, 1991

FILOSOFO ETA PENTSALARIK

Filosofo eta saiakeragilea. XX. mendeko espainiar pentsalari garrantzitsuenetako bat izan zen, baina bere obra, konpromiso zibikoaren eta pentsamendu poetikoaren artekoa, ez zen errekonozitua izan mendearan azken laurdenera arte, erbestealdi luze baten ondoren. Hainbat sari jaso zituen: Asturiasko Printzea saria (1981) eta Cervantes saria (1988), azken hau jasotzen lehen emakumea izanik.

wikipedia.org/wiki/Maria_Zambrano

Wikipedia komunitatea [CC BY-SA]



Paloma Miranda de Lage-Damon

Donostia, 1943 – 1999

HISTORIAGILEAK

Historiagilea eta arte komisarioa. Inkisizioak Euskal Herrian utzitako arrastoan espezialista, urte luzez ikertu zuen erakunde horren eta antzinako errituen eta sorginen arteko lotura. Foru Aldundiaren enkarguz, Zumalakarregiren gutun-liburua eta objektu pertsonalen tasazioan egingo du lan, eta honi esker sortuko da Zumalakarregi Museoa, non aholkulari gisa lan egin zuen Mirandak.

aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/eu/miranda-de-lage-damon-paloma

Arozamena Ayala, Ainhoa [CC BY-SA-NC]



Beatriz Infanta

Segovia, 1909 – Erroma, 2022

MONARKIA ETA NOBLEZIA

Beatriz Borboikoa eta Battenbergekoa Espainiako infanta izan zen, Alfontso XIII.aren eta Victoria Eugenia Battenberg-en hirugarren alaba. 1931n Bigarren Errepublikaren ondoren erbesteratu zen, lehenik Parisen eta gero Erroman bizi izan zelarik. 1935ean Civitella-Cesiko printzearekin ezkondu eta seme-alabak izan zituen

wikipedia.org/wiki/Beatriz_Borboikoa_eta_Battenbergekoa

Wikipedia komunitatea [CC BY-SA]



Cristina Infanta

Madril, 1911 – 1996

MONARKIA ETA NOBLEZIA

Maria Cristina Borboikoa eta Battenbergekoa Espainiako infanta izan zen, Alfontso XIII.aren eta Victoria Eugenia Battenberg-en bosgarren alaba. 1931n Bigarren Errepublikaren ondoren erbesteratu behar izan zuen, lehenik Parisen eta gero Erroman bizi izan zelarik. Ezkontzean Marone-Cinzano kondesa bihurtu zen eta lau seme-alaba izan zituen.

wikipedia.org/wiki/Maria_Cristina_de_Borbon_v_Battenberg

Wikipedia komunitatea [CC BY-SA]

c.1870 | Wikimedia



Maria Cristina

Txekiar Errepublika, 1858 – Madril, 1929

MONARKIA ETA NOBLEZIA

Maria Cristina Habsburgo-Lorenakoa, Espainiako erregina erregentea izan zen 17 urtez, bere semea adin nagusitasunera iritsi zen arte. Hiriko ohiko bisitaria zen eta bertako turismoaren garapena bultzatu zuen: Miramar Jauregia eraikitzea agindu zuen, kasinoa inauguratu zuen... Ohorezko alkate izan zen 1926an.

aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/eu/maria-cristina-hasburgo-lorena

Arozamena Ayala, Ainhoa [CC BY-SA-NC]

Aunamendi Eusko Entziklopedia



Rosario Artola Elizetxea

Donostia, 1869 – 1950

OLERKARIAK

Euskal bertsolari eta idazle donostiarra. Bertsokak eta olerkiak idatzi eta garaiko hainbat aldizkarietan argitaratu zituen. Bere lanetan eguneroko bizitzako gaiak (erlijioa, familia, natura, sentimenduak) eta Euskal kulturaren transmisioa lantzen du, umore eta alaitasunez. Antzerki taldean ere parte hartu zuen, eta gitarra lagun izan zuen bertsotan kantatzeko.

aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/eu/artola-elizetxea-rosario

Álvarez Uria, Amaia [CC BY-SA-NC]

Aunamendi Eusko Entziklopedia



Maria Dolores Agirre Azpiazu

Errezil, 1903 – Donostia, 1997

LITERATOAK

Euskal idazlea, itzultzailea eta maistra. Euskaltzain urgazle eta Euskerazaintzako kide izan zen. Donostian bizi eta magisteritza ikasi zuen, eta euskararen eta euskal antzerkiaren alde lan egin zuen, antzezlanak zuzendu, itzuli eta irrati saioetan parte hartuz. Mende laurden batez San Tomas egunez egiten zen euskal antzerki emanaldiaren sustatzailea izan zen.

aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/eu/aguirre-azpiazu-maria-dolores

Estornés Zubizarreta, Idoia [CC BY-SA-NC]

euskaltzaindia.eus



Lurdes Iriando Mugica

Donostia, 1937 – 2005

ABESLARIAK

Euskal kantari eta idazlea izan zen. 1960ko hamarkadan euskaraz abesten hasi zen, eta Euskal Kantagintza Berriaren aitzindarietako bat izan zen. Ez Dok Amairu mugimenduko kidea izan zen, euskararen eta euskal kulturaren berpizkundean funtsezko ekarpena eginez.

aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/eu/iriondo-mugica-lurdes

Arozamena Ayala, Ainhoa [CC BY-SA-NC]

Argia aldizkaria, 1970 | Wikimedia



Benita Asas Manterola

Donostia, 1873 – Bilbo, 1968

IRAKASLE ETA PEDAGOGOAK

Euskal irakasle, idazle eta emakume aktibista izan zen, pentsamendu eta militantzia feministaren figura handienetako bat Espainian. Irakasle ikasketak Valladoliden egin ondoren, bere bizitza profesional eta politikoaren zati handiena Madrilen garatu zuen, emakumeen hezkuntza eta eskubideen alde lan eginez, irakaskuntzan eta jardun feministan nabarmenduz, sufragioaren aldeko borrokan ere parte hartuz.

aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/eu/asas-manterola-benita

Estornés Zubizarreta, Idoia [CC BY-SA-NC]

eusko-ikaskuntza.eus



Simona Lajust

– 1657


AKTIBISMO ERLIJIOSOA

Simona Lajust donostiar ongile bat izan zen, Donostiako Santa Teresa komentuari fundazioa bultzatu zuena. Bere ondasunak eman zituen ondorengorik gabe alargundu ondoren, eta horrek Urgull mendian komentua eraikitzea ahalbidetu zuen. Bere lanak hiriaren ondare-ikur gisa irauten du.

[wikipedia.org/wiki/Convento_de_Santa_Teresa_\(San_Sebastian\)](https://wikipedia.org/wiki/Convento_de_Santa_Teresa_(San_Sebastian))

Wikipedia komunitatea [CC BY-SA]

Pedro Garmendia | euskonews.eus



Victoria Eugenia

Balmoral, 1887 – Lausanne, 1969

MONARKIA ETA NOBLEZIA

Espainiako erregina ezkontidea, Alfontso XIII.aren emaztea eta Britainia Handiko eta Irlandako Victoria I.aren biloba. Ezkontzarako ezinbestekoa izan zen berak protestantismoa baztertu eta erlijio katolikoa besarkatzea, Miramar Jauregian egin zen zeremonia batean. 1931n erbesteratu zuten, Bigarren Errepublikaren hasierarekin. Oporretan maiz Donostian egon zen errege-erregina familiarekin.

aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/eu/victoria-eugenia-battenberg

Arozamena Ayala, Ainhoa [CC BY-SA-NC]

Franzen, 1910 | Real Academia De la Historia



Karmele Esnal Zulaika

Orio, 1932 – 2012

IRAKASLE ETA PEDAGOGOAK

Andereño, ikastolen sustatzaile eta euskaltzale handia izan zen. Elbira Zipitriarengandik ikasitakoarekin, 1955ean bere ikastola sortu zuen Donostian eta, gero, Santo Tomas Lizeoan lan egin zuen 1997ra arte. Jarrai antzerki taldean parte hartu, idazlanak argitaratu eta Bagera elkartearen jardun zuen. Euskaltzaindiaren eta Euskal Idazleen Elkartearen kidea izan zen eta Abbadia Saria jaso zuen.

aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/eu/esnal-zulaika-karmele

→ Auñamendi Eusko Entziklopedia



Albreteko Joana


Saint-Germain-en-Laye, 1528 – Paris, 1572

MONARKIA ETA NOBLEZIA

Nafarroako eta Biarnoko erregina izan zen 1555etik 1572ra. Emakume kultua eta administrari bikaina, justizia kode baten idazketa agindu zuen. Protestantismora bihurtu zen eta Erreforma txertatu zuen Nafarroan eta Biarnon. Itun Berria euskarara itzultzea agindu zuen.

aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/eu/foana-iiiia-nafarroakoa

→ Estornés Zubizarreta, Idoia [CC BY-SA-NC]



Begoña Landaburu Azkue

Bilbo, 1917 – 1991

IRAKASLE ETA PEDAGOGOAK

Euskal emakume abertzalea izan zen, Teresa de Azkue Emakume Abertzale Batza-ko presidente eta lider nazionalistaren eta Félix Landaburu politikari jeltzalearen alaba. Bere izena Eusko Ikaskuntzako ikerketetan eta testu akademikoetan agertzen da, Bizkaiko ikastolen sorrerari eta garapenari buruzko ikerketa historikoan kasu.

eusko-ikaskuntza.eus

→ Eusko Ikaskuntza



Bizenta Mogel Elgezabal

Azkoitia, 1782 – Abando, 1854

LITERATOAK

Euskaraz idatzi zuen lehen emakumetzat hartua izan da, euskarazko alegiak argitaratu zituen lehena eta euskarazko haur eta gazte literatura idatzi zuen lehena. Hain zuzen emakume idazlea eta ikasia izateagatik azalpenak eman behar izan zituen. Bere idazlanik ezagunena Ipui onak (1804) da, beste hainbat lan ere egin zituen.

aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/eu/mogel-bizenta

→ López Gaseni, Manu



Karmele Saint-Martin

Iruñea, 1895 – Donostia, 1989

LITERATOAK

Izen zibila Maria del Carmen Navaz Sanz izan zuen arren, Karmele Saint Martin ezizenez egin zen ezaguna; kalitate altuko ipuin eta narrazioak argitaratu zituen, grazia eta ukitu pertsonalez beteak. Idatziriko kontakizun bildumetako bati esker, genero horri garai hartan eskainitako literatur lehiaketa nagusia irabazi zuen: Leopoldo Alas saria.

aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/eu/navaz-sanz-maria-del-carmen

→ Maraña Sánchez, Félix [CC BY-SA-NC]



Alice Gordon Gulick

Boston, 1847 – Londres, 1903

IRAKASLE ETA PEDAGOGOAK

Pedagogoa eta protestantea, emakumeek goi-mailako hezkuntza jaso zezaten lan egin zuen. 1881an Donostiara joan zen bizitzera eta eskola bat sortu zuen, baita neskenzako barnetegi bat ere, non emakumeak trebatzen zituen ikastetxe protestanteetan irakasle izateko. Barnetegia ikastetxe bilakatu zen, pedagogikoki oso aurreratua, irakaskuntza aktiboa baliatzen zuen. "Instituto Internacional" sortu zuen.

wikipedia.org/wiki/Alice_Gulick

→ Wikipedia komunitatea [CC BY-SA]



Inesa Gaxen

La Bastide-Clairence 1566 –

SORGINAK

Euskal andre heroia, XVII. mendeko lehen hereneko erlijio jazarpenaren biktima. 18 urterekin sorgintzat hartu zuten eta Bordeleko Parlamentuaren aurrean epaitu, azkenean errugabetzat joz. Absolbituta, Irunen eta Hondarribian bizi izan zen. 1611n berriz akusatu zuten, baina ez zuen errua onartu. Inkisizioaren aurrean epaitu zuten, eta indultua jaso arren, Hondarribian ez zen onartu eta Hendaiara erbesteratu zen.

aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/eu/gaxen-inesa

→ Arozamena Ayala, Ainhoa [CC BY-SA-NC]



Concha Chaos Lloret

Avila, 1937 – Donostia, 2014

Donostiar liburuzaina izan zen, Donostiako Haur Liburutegi Nagusia eta Haur Liburuaren Dokumentazioarenean sortzaile eta arduraduna. 1970an hasi zen Udal Liburutegiak Konstituzio plazan zeukan eraikinean zerbitzu hau ematen, eta urteetan zehar bilduma eta erabiltzaile berriei erantzun emateko zerbitzua osatzen joan zen. Udalak hiritar merezimenduaren domina eman zion 2007an.

wikipedia.org/wiki/Concha_Chaos

→ Wikipedia komunitatea [CC BY-SA]



Felisa Martin Bravo

Donostia, 1898 – Madril, 1979

FISIKARIAK

Fisikari eta meteorologo donostiarra, Estatu mailan Fisiketan lehen doktorea izan zen. Zientzia Fisikoak ikasi zituen, Madrilgo Unibertsitate Zentralean. 1926an, doktoregoa lortu zuen, nikelaren, kobaltoaren eta berun sulfuroaren oxidoen egitura kristalinoari buruz egindako ikerketari esker. Ikerlari ez ezik, irakasle ere aritu zen. Zerbitzu meteorologikoan sartu zen lehenengo emakumea izan zen.

aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/eu/martin-bravo-felisa

Anduaga Egaña, Aitor

Real Academia De la Historia



Gloria Fuertes García

Madril, 1917 – 1998

OLERKARIAK / LITERATOAK

1936ko belaunaldiko (gerraosteko lehen belaunaldiko) mugimendu literarioko poeta espainiarra. Postismo izenez ezaguna den mugimenduekin ere lotu ohi da. Batez ere, 1970eko hamarkadan egin zen ezagun, telebistako haur- eta gazte-programetan parte hartu zuelako. Bere poesia-lanetan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna, bakezaletasuna eta ingurumena jorratu zituen.

wikipedia.org/wiki/Gloria_Fuertes

Wikipedia komunitatea [CC BY-SA]

Gloria Fuertes Fundazioa



Maria Elena Arizmendi

Donostia, 1916 – 2001

LITERATOAK

Idazle, etnografo eta koreografoa. Etnografiari eskaini zion bere jardueraren zati handi bat, bereziki dantza eta janzkerari eta beste diziplina batzuekin duten loturari, hala nola arkeologiarekin, historiarekin, artearekin, erlijioarekin eta herrietako folkloreakin.

wikipedia.org/wiki/Maria_Elena_de_Arizmendi_Amiel

Wikipedia komunitatea [CC BY-SA]

1955 | Wikimedia



Marie Curie

Varsovia, 1867 – Passy, 1934

ZIENTZIALARIAK / FISIKARIAK

Fisikari eta kimikaria, Erradiologia arloan aitzindaria. Lehena izan zen bi arlotan Nobel saria lortu zuena (Fisikan eta Kimikan). Kimikako Nobel saria jaso zuen bere jaiotze-herrialdeari ohore eginez polonio izendatu zuen elementu kimikoa aurkitzeagatik. Parisko Unibertsitateko lehen emakume katedraduna izan zen.

wikipedia.org/wiki/Marie_Curie

Wikipedia komunitatea [CC BY-SA]

Wikimedia



Madalena Jauregiberri

Zuberoa, 1884 – 1977

LITERATOAK

Idazlea eta kultur sustatzailea. Begiraleak euskal emakume taldeko lehendabiziko lehendakaria izan zen, eta euskara Ipar Euskal Herriko eskoletan sartzeko mugimenduaren aitzindarietako bat. "Herria", "Gure Herria" eta "Basque Eclair" eta "Sud-Ouest" egunkarietako euskararen aldeko lankidea. Euskaltzain urgazle izendatu zuten 1957an, eta ohorezko euskaltzain 1975an.

aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/eu/jauregiberri-madeleine

-

zuzen.eus



Dulce Maria Loynaz

La Habana, 1903 – 1997

OLERKARIAK

Poeta eta idazle kubatarra izan zen, euskaldunen ondorengoa. Cuban zein Espainian Akademien kidea eta literatura nazional eta nazioarteko sari ugariaren irabazlea, haien artean Miguel de Cervantes Saria 1992an. Bere poesiak tonu liriko eta intimoa du, bakardadea, edertasuna eta barne-bakearen bilaketa landuz.

aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/eu/loynaz-munoz-dulce-maria

Hernández Reinoso, Francisco Luis [CC BY-SA-NC]

arbolinvertido.com



Carmen Burgos y Seguí · Colombine

Almeria, 1867 – Madril, 1932

LITERATOAK / AKTIBISTAK

Colombine ezizenez ezaguna, kazetari, idazle, itzultzaile eta aktibista espainiarra izan zen. 98ko Belaunaldiko kide, Espainiako lehen kazetari profesionala bat eta gerrako berriemailea, emakumeen eskubideen aldeko aitzindaria izan zen, batez ere sufragioa, dibortzioa eta hezkuntza defendatuz.

wikipedia.org/wiki/Carmen_de_Burgos_y_Segui

Wikipedia komunitatea [CC BY-SA]

Wikimedia



Elisabete Maiztegi Arrizabalaga

Soraluze, 1911 – Donostia, 1996

IRAKASLE ETA PEDAGOGOAK

Irakaslea. Euskaraz irakasten zuen eta hizkuntza horren alde lan egin zuen bere bizitza osoan. Francoren garaian debekatu egin zioten irakaskuntzan jarraitzea, eta ezin izan zuen berriz irakasle aritu hau hil zen arte. Donostiako Loiola Irratiaren sortzaileetako bat izan zen, 1960 aldera.

euskara.euskadi.net/appcont/sustapena/datos/eiraka.pdf

Hizkuntza Politikarako Sailordetza ©

euskara.euskadi.net

mapandreak

GIDA DIDAKTIKOA



Zertarako gida hau?

Donostiako kale-izendegiaren inguruan hausnartuz sorturiko “Mapandreak. Plazaratu, maparatu” mapa ilustratua oinarritzat hartuta, esku artean duzun Gida Didatiko hau garatu dugu. Honen helburua, **Donostiako Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetako Hezkuntza Komunitateko kideentzako erabilgarri izan daitezkeen jarduera eta materialak** garatzea da, ikasleekin batera lan egin ahal izateko.

Helburuak:

- Gure hiri eta auzoetan, emakumeen irudikapena/presentzia/ikusgarritasuna aztertzea, eta kale izendegian emakume eta gizonen arteko berdintasuna aldarrikatzea.
- Emakumeek hirian zein espazio publikoan, ondare-, kultura- eta hezkuntza-eremuetan eta historian duten “gabeziari” buruz taldean eta banaka hausnartzea.
- Emakumeek gizartean egindako ekarpen historikoa ikusaraztea eta balioestea, eta emakumeen lorpenak zabaltzea, banakakoak zein kolektiboak.
- Emakumeei buruzko imajinario kolektiboa birpentsatzea.
- Eztabaidarako eta hausnarketa kolektiborako gune bat sortzea.
- Emakumeen historia eta genero-ikuspegia eguneroko jardueretan txertatzeko tresnak ematea.
- Memoria eta ikusgarritasunari buruzko hezkuntza-jarduerak egitea ikasgelan zein kalean.



Proiektuaren norabidea eta aipaturiko helburu hauek, **Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH)**³ betetzen laguntzeko bideratuta daude. “Mapandreak” proiektu honekin lotuta, honako GJH hauek nabarmenduko genituzke:

GJH4. Kalitatezko Hezkuntza

Guztionezko kalitatezko hezkuntza inklusiboa nahiz bidezkoa bermatzea eta etengabeko ikaskuntzarako aukerak bultzatzea.

GJH5. Genero berdintasuna

Genero-berdintasuna lortzea eta emakume nahiz neskato guztiak ahaldunduz.

GJH11. Hiri eta komunitate jasangarriak

Hiriak eta giza kokaguneak inklusiboak, seguruak, erresilienteak eta jasangarriak izatea lortzea.

GJH horien baitan, zehazki, ekimen hau aipatuko dugu, gure proiektuari marko orokor bat eskaintzen diolakoan: **“Iruditeria kolektiboa eta kultura-ondarea eraikitze bidean emakumeek egiten duten ekarpenaren garrantzia ikusaraztea...”**



[‘Andreen mapatze bat hirian’](#) BERRIA, 2024 martxoan. Testua: Miren Mujika Telleria. Argazkia: Ane Chueca.


“Iruditeria kolektiboa eta kultura-ondarea eraikitze bidean emakumeek egiten duten ekarpenaren garrantzia ikusaraztea...”

3 | Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH). Iturria: programa.irekia.euskadi.eus/eu/sustainable_dev_goals

Konpetentzien garapena:

Oinarritzko Hezkuntzarako zein Batxilergoko curriculum dekretuetan⁴ argi zehazten da ondorengo **printzipio pedagogikoa**:

“...Ikasgai guztietan, zeharka sustatu behar dira genero-ikuspegia, bakearen aldeko hezkuntza, osasun-hezkuntza, sentsibiltate estetiko eta sorkuntza artistikoa, jasangarritasunerako eta kontsumo arduratsurako hezkuntza, elkarrenganako errespetua eta indarkeriazko edo diskriminaziozko jarreraren eta portaeraren prebentzioa, eta berdinen arteko lankidetzeta...”



Helburuei dagokionez, hezkuntza etapa bakoitzak ikasleei honako hauek egiteko gaitasuna garatzen lagundu behar diela finkatzen da bertan, besteak beste:

- Emakumeen eta gizonen eskubide- eta aukera-berdintasun eraginkorra sustatzea, dauden desberdintasunak analizatzea eta kritikoki baloratzea, baita emakumeek historian izan duten zeregina aitortzea eta irakastea ere, eta benetako berdintasuna eta jaiotzan, sexuan, arraza- edo etnia-jatorrian, desgaitasunean, adinean, gaixotasunean, erlijioan edo sinesmenetan, sexu-orientazioan edo genero-identitatean nahiz beste edozein baldintza edo inguruabar pertsonal edo sozialetan oinarritutako diskriminaziorik eza bultzatzea.
- Gaur egungo munduaren errealitateak, aurrekari historikoak eta bilakaeraren faktore nagusiak ezagutzea eta kritikoki baloratzea. Modu solidarioan parte hartzea beren gizarte-ingurunearen garapenean eta hobekuntzan.
- Espiritu ekintzailea finkatzea, sormena baliatuz, malgua izanez, ekimenez, talde-lana eginez, norberaren gainean konfiantza izanez eta zentzu kritikoa izanez.

Marko honetan, esku artean duzun gida didaktikoak jasotzen dituen jarduerak, bereziki ondorengo **funtszko konpetentziei ekarpenak egiteko** helburuarekin diseinatu dira:

HERRITARTASUNERAKO KONPETENTZIA

“Herritartasunerako konpetentzia lagungarria da ikasleek herritartasun arduratsua izan dezaten eta bizitza sozial eta zibikoan bete-betean parte har dezaten, kontzeptu eta egitura sozial, ekonomiko, juridiko eta politikoen ulermenean oinarrituta, bai eta munduko gertaeren ezagutzan eta iraunkortasunarekiko eta munduko herritartasuna lortzearekiko konpromiso aktiboan ere. Horren barruan sartzen dira alfabetatze zibikoa, giza eskubideen errespetuan oinarritutako kultura demokratikoaren berezko balioen onarpen kontzientea, gure garaiko arazo etiko handiei buruzko hausnarketa kritikoa eta 2030 Agendan planteatutako Garapen jasangarriko Helburuekin bat datorren bizimodu iraunkorraren garapena”.


EKINTZAILETZARAKO KONPETENTZIA

“Ekintzailetzarako konpetentziak aukera eta ideiekin jarduteko bizi-ikuspegia garatzea eskatzen du, beste pertsona batzuentzako baliozko emaitzak sortzeko beharrezkoak diren ezagutza espezifikoa erabiliz. Hainbat estrategia eskaintzen ditu: beharrak eta aukerak hautemateko begirada egokitzea; sormen eta berrikuntza prozesuen barruan, pentsamendu estrategikoa, sormena, irudimena eta hausnarketa etiko, kritiko eta konstruktiboa erabiliz ideiak sortu eta birplanteatzea; ingurunea aztertu eta ebaluatzeke pentsamendua entrenatzea; eta ikasteko, arriskatzeko eta ziurgabetasunari aurre egiteko jarrera piztea. Era berean, informazioan eta ezagutzan oinarritutako erabakiak hartzea eta beste pertsona batzuekin modu arinean lankidetzan aritzea eskatzen du, motibazioz, enpatiaz eta komunikazio- eta egoziazio-trebetasunez, planteatutako ideiak ekintzara eramateko balio sozial, kultural eta ekonomiko-finantzarioko proiektu iraunkorrak planifikatuz eta kudeatuz”.

⁴ | 77/2023 DEKRETUA, maiatzaren 30ekoa, Oinarritzko Hezkuntzaren curriculum zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoa.
76/2023 DEKRETUA, maiatzaren 30ekoa, Batxilergoaren curriculum zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoa.

Jarduerak

#1. Emakumeen presentzia hirian.



Bloke honetan, hiriko kale-izendegia aztertuko dugu, ondorengo jardueren bitartez:

#1.1. Jarduera

Berdintasuna al dago kale-izendegietan? Datuak azterten.

#1.2. Jarduera

Espazio publikoaren erabilera eta emakumeen ikusgarritasuna.

Eskolako patioa, hiriko espazio publiko.

#1.3. Jarduera

Zer dakizu Donostiako kale-izendegiko emakumeei buruz?

Ezagutu zure auzoa ibilbideak diseinatuz.

#2. Zenbat emakume, hainbat ogibide.



Bloke honetan, hainbat emakumeren biografia eta jardun profesioaletan sakonduko dugu:

#2.1. Jarduera

Emakume langileen aztarnak: hiriko ondarean sakonduz.

#2.2. Jarduera

Hezkuntza eta hizkuntza.

#3. Memoria bizirik, arteen bidez.




Bloke honetan, arte-adierazpenek hiriko memorian dute garrantziaz arituko gara:

#3.1. Jarduera

Emakumeen memoria eta presentzia hirian, arte-adierazpenen bidez.

#1. Emakumeen presentzia hirian.



Bloke honetan ondorengo jarduerak topatuko dituzu:

#1.1. Jarduera

Berdintasuna al dago kale-izendegietan? Datuak aztertzen.

#1.2. Jarduera

Espazio publikoaren erabilera eta emakumeen ikusgarritasuna. Eskolako patioa, hiriko espazio publiko.

#1.3. Jarduera

Zer dakizu Donostiako kale-izendegiko emakumeei buruz? Ezagutu zure auzoa ibilbideak diseinatuz.

#1. Emakumeen presentzia hirian.

#1.1. Jarduera

Berdintasuna al dago kale-izendegietan? Datuak aztertzen.

Testuingurua eta abiapuntua:

Azken urteetan, gure herri zein hirietan emakume izena hartzen duten kale gero eta gehiago badira ere, **oraindik ere alde nabaria dago gizon eta emakumeek hirian duten presentziari dagokionez.**

Aranzadi Zientzia Elkarteak aztertutako datuen arabera, 2017 urtean Donostiako 852 kaleetatik soilik 55 dira emakume izena dutenak (%6,4a) - haien artean daude lorpen profesional edo pertsonalengatik esanguratsuak diren emakumeak, eta baita erregina, santu eta pertsonaia erlijiosoak ere-. Gizonen kasuan, berriz, 279 dira (%32,7a). Gainerako kale eta plazak toponimoak dira, eta genero neutrokoak.

Amaierako ekoizpena:

Datuak aztertu eta sortu grafiko bat datu hauek modu bisual batean aurkezteko.

Hiri osoko datuak aztertu lehenik, eta auzo bakoitzeko datuak ondoren.

Grafikoa estilo desberdinetakoa izan daiteke: gazta-itxurakoa, zutabeak... edota bestelako infografia bisualak erabil ditzakezu.

Helburuak:

- Kontzientzia hartzea hiriko kale-izendegian existitzen den aldeaz gizon eta emakumeek hirian duten presentziari dagokionez.
- Informazioa bilatu eta datuak kontrastatzea.
- Hizkuntza bisualaz baliatzea informazioa modu argian helarazteko.

Maila: DBH 4. Batxilergoa 1-2

Denbora: 2-3 saio

Taldekatzea: binaka


- Arloak:**
- [Jarduera orokorra]
 - Matematika
 - Hezkuntza plastikoa, ikus- eta ikus-entzunezkoa

Materialak eta baliabideak:

- **Kale-izendegiaren mapa eta zerrenda:** [Donostiako Udala > Datu Irekiak > Katalogoa > Kale izendegia](#)
[Donostiako Udala > Hirigintza > Lurralde Informazioa atala > Kale izendegia](#)
[GeoDonostia](#). (Geruzen zerrendan, iragazi: Izen-geografikoak > Emakume-izenen kaleak)
- Datu kudeaketarako eta grafikoak sortzeko programak: Excel, [Canva](#)

Jarduerarako jarraibideak:

- 1 Kale-izendegiaren zerrenda aztertu. Zenbat emakume izen, zenbat gizon izen, zenbat toponimo? Hiri osoko datuak aztertu ditzakezu, edota zure auzoari dagozkionak.
- 2 Zergatik uste duzu horrelako aldea dagoela?
- 3 Alde handirik nabari al duzu auzoen artean?
- 4 Ezagutzen al duzu azken 5 urteotan emakume izena jarri zaion kale, plaza, bestelako espazio edo elementurik? Zergatik uste duzu izan daitekeela garrantzitsua espazio berri gehiago izendatzea?
- 5 Aztertutako datuak bisualki adierazteko, sortu irudi grafiko bat. Jarraian adibide batzuk:



#1. Emakumeen presentzia hirian.

#1.2. Jarduera

Espazio publikoaren erabilera eta emakumeen ikusgarritasuna.
Eskolako patioa, hiriko espazio publiko.

Testuingurua eta abiapuntua:

HIRIA

Collectiu Punt 6, Jane Jacobs, Leslie Kern eta Dolores Hayden bezalako egileek, ikuspegi feminista eta kritikotik, hiriaren antolaketak generoarekin duen harremana aztertu dute. **Hiria ez da neutroa**: hiri-espazioen diseinu eta antolaketak baldintzatzen du nork erabil dezakeen, nola eta zein baldintzatan. Hirigintza tradizionalak ikuspegi androzentriko batetik diseinatu ditu hiriak: historikoki gizonezkoei esleitu zaizkien **lan produktiboak lehenetsi ditu espazio publikoan** —kaleak, plazak, lan-guneak, garraioa—, eta emakumeen **lan erreproduktiboa espazio pribatura** —etxea— mugatu da, besteak beste, haurren zaintza, adinekoen arreta, etxeko garbiketa eta elikadura. Bizitzarako funtsezkoak diren jarduera erreproduktibo hauek ez dira ekonomikoki baloratu, eta emakumeen gain erori izan dira historikoki. Ondorioz, eremu pribatura mugatu dira emakumeak, hirian haien mugikortasuna eta ikusgarritasuna mugatuz.

Emakumeen ikusgarritasuna eta presentziaren garrantzia espazio publikoan

Funtsezkoa da emakumeek espazio publikoa modu aktibo eta seguruan bizi ahal izatea; hirian parte hartzeko, erabakiak hartzeko eta bertan eroso sentitzeko eskubidea izatea. Hiri inklusibo batek, bizitzeko, ibiltzeko eta elkarbizitzeko modu anitzak aitortzen eta baloratzen ditu.

Berdintasunaren bidean, hirian **emakumeen ordezkagarritasuna bermatzeak** (kale eta hiri-espazioen izenen bidez adibidez), eta **ikonografia ez-diskriminatzaileak erabiltzeak** ikusgarritasuna eta inklusioa indartzen ditu, sinbolikoki ere emakumeek zein pertsona zaugarriek eremu publikoan lekua dutela aitortuz.

ESKOLA

Eskola hiriaren isla bezala ulertuta, patioa eskolako espazio publikoarekin alderatu genezake. Espazio publikoaren kasuan bezala, **patioaren konfigurazioak zein bertako elementuek eragina daukate espazio horren erabilera-moduetan eta erabiltzaileengan**. Eskolako espazioek —adibidez patioek— **genero-rolak erreproduzitu ditzakete espazioen banaketa eta erabileran**. Horregatik, garrantzitsua da ikasgelatik bertatik hausnar-tzea nola eraikitzen dugun espazio bidezkoago bat guztiontzat.

Amaierako ekoizpena:

Eskolako patioaren mapaketa: erabileren azterketa.

Eskola eremuko seinaleztapenaren azterketa.

Helburuak:

- Eskolako espazioen erabilerari dagokionez egon daitezkeen desberdintasunez jabetzea, hauen azterketa-aren bitartez. Eskolako espazio berdinzaleagoak lortzeko proposamenak pentsatzea eta adostea.
- Eskolako seinaleztapen eta ikonografiak aztertzeko, ikuspegi inklusibo batetik, eta ikonografia ez-diskriminatzailearen erabilera bermatzea eskola esparruan.

Maila: DBH 3-4. Batxilergoa 1-2

Denbora: 3-4 saio

Taldekatzea: 3-4 ikasleko taldeak

Arloak: [Jarduera orokorra]
Marrazketa
Gorputz Hezkuntza

Materialak eta baliabideak:

- Eskolako patioaren planoak (Marrazketa ikasgaiaren sortu / Maps-etik lortu)
- Marrazteko eta idazteko materiala
- Koloretako post-itak aukeran
- Mugikorra edo argazki kamara

Sakontzeko baliabideak:


Eskoletako patioen eta espazioen eraldaketak Hezkuntza-komunitate osoaren inplikazioa eskatzen du. Jarduera honetan, ikasleekin eztabaida sustatzeko hainbat galdera proposatzen dira, hausnarketa kolektiboa bultzatzeko. Hala ere, gai sakondu nahi bada, eskuragarri daude gida eta baliabide interesgarri batzuk, eraldaketa prozesu horiek laguntzeko:



El patio de la escuela en igualdad.
Iturria: [Equal saree](#)



Pacios Coeducativos.
Iturria: [Colectiu Punt 6, Coeducació](#)



Eskolen espazioen diagnostikoak eta moldaketa praktikoak berdintasunaren ikuspegitik
Iturria: [Emakunde, Zuriñe Burgoa](#)

Jarduerarako jarraibideak:

A) Eskolako patioaren azterketa egin taldeka, horretarako patioaren planoak oinarritzat hartuta. Behaketa eta zure esperientziak erabiliz, datu bilketa egin dezakezu planoaren gainean bertan. Ondorengo galderak lagungarri egingo zaizkizu azterketa bideratzeko:

1. Espazioaren konfigurazioa: patioaren ezaugarri fisikoak.

- **Jolas eta ekintzak desberdinak** ahalbidetzen dituzten **espazio eta elementuak existitzen al dira?**
Adibidez: kirol ekintzak taldean, banakako jolaserako guneak, deskantsurako espazioak eta elementuak (eserlekuak edo antzekoak), mahai-jolaserako guneak, irakurtzeko guneak...
- **Zona desberdinak mugatzeko elementuak** al daude? (hormak, pabimentu desberdinak, lurreko marrak, harmailak, mahaiak...)
- Existitzen al dira **ekintza desberdinak aldi berean** ematea ahalbidetzen duten espazio edo elementuak?
- Existitzen al dira **kanpo espazio-estaliak**, edota itzala eta babesa ematen duten elementuak?
- Gune guztietan **argiztapena** nahikoa eta egokia al da?
- Patioko **zona guztiek garrantzia bera** al dute?

2. Patioko erabilerak eta erabiltzaileen joerak.


Aste betez, patioko erabiltzaileak zeintzuk diren eta espazioa nola erabiltzen duten aztertu, zure esperientziak ere kontutan hartuz.

Erabilera nagusiak behatuz:


- Patioko gune zentralean, ekintza bat baino gehiago egiten al dira bertan aldi berean? Zeintzuk?
- Zeinek erabiltzen du patioko gune zentrala gehienbat? mutilek, neskek, talde mistoak?
- Existitzen al da erabilera erregulatzen duen araurik? Adibidez, 'baloirik gabeko eguna', 'musika eguna'...
- Ezberdintasunak ikusten al dituzu neska eta mutilen jolas-ohituretan? Elkarrekin jolasten dira?
- Patioan, leku desberdinak okupatzen al dituzte? Zergatik uste duzu gertatzen dela?
- Zure ustez, patioko elementuek (eserlekuak, zuhaitzak, lurreko marrak...) eragina al dute ikasle bakoitzak espazioa erabiltzeko duen moduan?

Zure esperientzia:


- Zein espazio erabili ohi duzu zuk gehienbat jolas-ordu garaian?
- Ba al dago erabiltzen ez duzun espaziorik? zergatik dela esango zenuke?
- Zer beharko zenuke erabiltzen ez duzun espazio hori erabiltzea atseginago izateko? (Adibidez, esertzeko lekuak egotea, argiztapen hobea...)



Bartzelonako Lluís Vives Eskolako patioaren planoak
| Carme Pinós i Desplat. Iturria: arquitecturacatalana.cat



Diagnostiko parte-hartzailea, patioaren erabileren mapaketa, Lluís Vives Eskola | Col·lectiu Punt 6 eta CoeducAcció, 2016. Iturria: punt6.org



Patioaren okupazio mapa generoen arabera.
| Architektoniczki _ Ewelina Jaskulska eta Honorata Grzesikowska arkitektoen ikerketa
Iturria: architektoniczki

B) Seinaleztapenaren azterketa.

Ikonografia eta sinbolo ez-diskriminatzaileak irudikapen bisualak dira (marrazkiak, seinaleak, piktogramak), pertsona guztiak barne hartzeko eta eta estereotipoak saihesteko diseinatuak — edozein delarik ere haien generoa, identitatea, adina, gaitasun fisikoa edo testuinguru kulturala —.

- Aztertu eskola-esparruan (patioan zein bestelako espazioetan: ikasgela, komunak, aldagelak, pasiloak, liburutegia, jantokia, ikasleen txokoa...) dauden ikonografia eta sinbolo grafikoak (kartelak, seinaleak, informazio-liburuxkak...).
- Etxetik eskolarako bidean ikusten dituzunetan ere jarri fokua: publizitate kartelak autobus geltokietan, denden erakusleihoetan, kalean...

Argazkiak atera eta talde handian eztabaidatu: **Ez-diskriminatzaileak direla esango zenuke? Zergatik?**

C) Hobekuntza proposamenak.

Ikaskideekin ondorioak elkarbanatu talde handian, eta **espazio berdinzaleagoak lortzeko hobekuntza proposamenak** egin.

#1. Emakumeen presentzia hirian.

#1.3. Jarduera

Zer dakizu Donostiako kale-izendegiko emakumeei buruz?
Ezagutu zure auzoa ibilbideak diseinatuz.

Testuingurua eta abiapuntua:

Zein ibilbide egiten dituzu zure egunerokoan? Etxetik eskolara, plazara, parkera, erosketak egitera, kirola egitera... Ibilbide horretan, **jakingo al zenuke zein diren zeharkatzen dituzun espazio zein kaleei izena ematen dieten pertsonaia edo lekuak?**

Amaierako ekoizpena:

Zure eguneroko ibilbideen erregistroa, zeharkatzen dituzun espazio zein kale ezberdinen argazkien bilduma osatuz.

Helburuak:

- Gure eguneroko bizitzan erabiltzen dugun inguruneari kontzienteki begiratzea.
- Ikasleen aurre-ezagutzak mobilizatzea eta ikerketarako interesa sortzea.

Maila: DBH 1-4. Batxilergoa 1-2

Denbora: 5 saio (1 gelan, 2 kolean, 2 gelan)

Taldekatzeari: 3-4 ikasleko taldeak


- Arloak:**
- [Jarduera orokorra]
 - Hezkuntza plastikoa, ikus- eta ikus-entzunezkoa


Materialak eta baliabideak:

- Auzoko planoak [I ERANSKINA]
- Marrazteko eta idazteko materiala
- Mugikorra edo argazki kamara
- Guraizeak eta zeloak

Jarduerarako jarraibideak:

- 1 Zure auzoko plano hutsa inprimatu [I ERANSKINA] eta taldekideekin batera, buruz **ezagutzen dituzuen auzoko kale, plaza, parkeen... izen guztiak idatzi** bertan.
- 2 Aztertu, idatzi dituzuen horien guztien artean, gehienak gizonezko pertsonaien izenak, emakumezkoenak, edota toponimoak diren. **Zein gailentzen dira?**
Google maps erabili dezakezu jarritako horiek ondo dauden konprobatzeko, edota berriak gehitzeko.
- 3 Auzotik barrena **egunerokoan egiten dituzun ibilbideak erregistratuko** dituzu orain.
 - Lehenengo, **planoan ibilbideak marraztu.** (Taldekide guztien ibilbideak plano berean erregistratu daitezke, edo ikasle bakoitzak berea sortu dezake.)
 - Ondoren, kalera atera eta zure ibilbideak zeharkatzen duen **espazio edo kale bakoitzaren argazki** bat aterako duzu. Kalea bera eta kalearen izena adierazten duen plakaren argazkiak egin ditzakezu.
 - Argazkiak inprimatu eta maparen gainean kokatuko dituzue, irudiko adibidearen antzeko poster bat lortuz. Eskuz edo digitalki egin daiteke.
- 4 Aztertu: izenak soilik irakurrita, jakingo zenuke zein diren? taldekideekin eztabaidatu.
- 5 Azkenik, jakingo al zenukete auzoko ibilbideetan erregistratu dituzuen pertsonaia guzti horiek nortzuk diren? talde handian eztabaidatu.





#1 ibilbidea



Heriz Pasealekua



Txalupagillene Plaza



Simona de Lajust Kalea



Gaskoinia Plaza



Bentaberri Plaza



Jose Maria Sert Plaza



Serrano Anguita Kalea



Bentaberri Plaza



Jose Goikoa Kalea



Matia Kalea



Zarautz Kalea



Xalbador Bertsolariaren Kalea

#2. Zenbat emakume, hainbat ogibide.



Bloke honetan ondorengo jarduerak topatuko dituzu:

#2.1. Jarduera

Emakume langileen aztarnak: hiriko ondarean sakonduz.

#2.2. Jarduera

Hezkuntza eta hizkuntza.

#2. Zenbat emakume, hainbat ogibide.

#2.1. Jarduera

Emakume langileen aztarnak: hiriko ondarean sakonduz.

Testuingurua eta abiapuntua:

Donostiako kaleetan hainbat ogibide desberdin gauzatu dituzte emakumeek urteetan zehar. Emakumeek hiriaren historian zehar egin dituzten lanbideak eta hiriari egindako ekarpena ezagutzeko, ezinbestekoa da ogibide horiek ikertu eta ezagutzea, hauen ondareaz eta emakumeek hirian duten ikusgarritasunaz hausnartuz.

Amaierako ekoizpena:

Donostian emakumeek gauzaturiko ogibideen ikerketa, eta hauek hiriari egindako ekarpenaren inguruko hausnarketa jasotzen dituen **aurkezpen edo poster digitala**.

Helburuak:

- Emakumeen lanak Donostiako historian eta garapenean izan duten eragina aztertzea, eta lana aitortzeari buruzko pentsamendu kritikoa sustatzea.
- Kale-izendegia aztertuz, genero-berdintasunari buruzko gogoeta egitea.
- Historiaren ezagutza eraikitzeko, ikerketarako eta elkarlanerako trebetasunak garatzea.
- Museoen eta artxibategiek memoria eta ondarearen kontserbazioan duten garrantziaz jabetzea.

Maila: DBH4, Batxilergoa 1-2

Denbora: 8-10 saio

Taldekatzea: 2-3 ikasleko taldeak

- Arloak:**
- [Jarduera orokorra]
 - Geografia eta Historia
 - Gaztelania eta Literatura
 - Hezkuntza plastikoa, ikus- eta ikus-entzunezkoa

Materialak eta baliabideak:

- [Mapandreak mapa ilustratua](#)
- Idazteko materiala
- Aurkezpen edo posterrak sortzeko programak (Slides, Canva)
 - [Poster txantiloia \(Google Slides\)](#)
- [\[II ERANSKINA\]](#) irakaslearentzako

Sakontzeko baliabideak:

1. Artikulua: “Emakumeen lana Donostian”. | www.euskonews.eus

Ikerketa-lana: “Emakume donostiarrek XIX eta XX mendeen bete zuten eginkizuna”. | www.eusko-ikaskuntza.eus

Autoreak: Miren Koro Campos Santacana eta Laura Rodríguez Zamarreño.

2. “Donostiako emakumeen kalejira” | www.santelmomuseoa.eus

Autorea: San Telmo Museoa.

Alde Zaharrean eta hiriko lehen zabalgunean barrena ibilbide historikoa eskaintzen du dokumentuak, emakumeek beren garapenean duten papera nabarmenduz.

3. Tabakaleraren “Kearen artxibogileak” filma. | www.tabakalera.eus

Zuzendaria: Lucia Montero Sánchez de las Matas.

Filmak Tabakalerako emakume langileen ibilbidea kontatzen du, iraganeko tabako-fabrikako langileetatik gaur egungo kultura-zentroko langileetaraino. Testigantzen bidez, espazio horretan izandako lan-aldaketak eta belaunaldien arteko loturak erakusten ditu.

Tabakalerako artxiboan hainbat argazki jasotzen dira: makusi.tabakalera.eus

4. Gipuzkoako Foru Aldundiko lanbideen zerrenda. | www.gipuzkoa.eus

Lanbide desberdinen deskribapena, historia eta artxibategi desberdinetako argazkiak jasotzen dira bertan.

5. Kutxateka. | www.kutxateka.eus

Kutxa Fundazioaren artxibategia: argazkiak, liburuak, artelanak.



“El papel de las mujeres donostiaras en los siglos XIX y XX”.



Emakumeen Kalejira. San Telmo Museoa



Kearen artxibogileak filma. Tabakalera. Iturria: tabakalera.eus/eu/ikus-irakurri-entzun/edukiak/filma-kearen-artxibogileak/




Donostiar puru-egileak lantegian 1940. Iturria: Altadis artxibategi grafikoa www.gipuzkoa.eus/eu/web/aintzinako-lanbideak/donostiako-tabakalera



Jarduerarako jarraibideak:

- 1 **Abiapuntua:** Donostiako kale-izendegia aztertu, eta bertan aitortza egiten zaien **emakumeen ogibideen zerrenda sortu** (talde handian). Horretarako Mapandreak mapa ilustratua baliatu dezakezu.

Kale-izendegian agertzen ez diren eta emakumeek gauzatu dituzten beste hainbat ogibide ere existitu izan dira gure hirian edo lurraldean. Jakingo zenuke batenbat aipatzen? **Osatu zerrenda**, hauek gehituz. Gipuzkoako Foru Aldundiko lanbide desberdinen zerrenda kontsulta dezakezu: www.gipuzkoa.eus



- [1] Andre zigarrogileak
- [2] Latsariak
- [3] Arrain saltzaileak
- [4] Saregileak
- [5] Batelariak
- [6] Baserritarrak
- [*] ...



- 2 **“Emakumeen lana Donostian” artikulua** irakurri, eta ondorengo galderari erantzun. Informazioan gehiago sakontzeko, “Emakume donostiarrek XIX eta XX mendean bete zuten eginkizuna” ikerketa-lan zabalagoa ere irakurri dezakezu. - Irakasleak ikus [\[II ERANSKINA\]](#) -

1. Zer rol betetzen zituzten emakumeek Donostiako landa-eremuan? Baserritarrek etxe barruan zein kanpoan egiten zituzten lanak kontutan hartu.

5. Zer eragin izan zuen Tabako Fabrika sortzeak Donostiako emakumeen lan-bizitzan? Aztertu nola aldatu zen emakumeen parte-hartzea hiriko lan-eremuan fabrika ireki ondoren.

2. Nola laguntzen zioten arrantza-sektoreko emakumeek tokiko ekonomiari? Itsasontziak portura iritsi aurretik eta ondoren egiten zituzten jarduerari buruz hausnartu.

6. Zer nolako lanpostuak egiten zituzten emakumeek zerbitzuen sektorean Donostiako turismoaren gorakadan? Turismoari eta etxeko-zerbitzuei lotutako lanbideetan pentsatu.

3. Artikulua arabera, zergatik ez zen aintzatesten emakumeek nekazaritzan eta arrantza munduan egiten zuten lana? Garai hartako emakumeen lanari buruzko pertzepzio sozialean pentsatu.

Zer abantaila eta desabantaila izan zitzakeen esparru horietan lan egiteak? Turismoak lan-baldintzetan nola eragin dezakeen hausnartu.

4. Zer faktorek eragin zuten 1878an Donostia Tabako Fabrikaren kokaleku gisa aukeratzeko orduan? Kontuan hartu zigarrogileen lan-egoera eta tokiko agintarien erabakiak.

7. Zure iritziz, nolako bilakaera izan du emakumeen partaidetzak lan-esparruan Donostian, artikuluan deskribatutako garaietatik gaur egunera arte? Emakumeen enplegu tasak eta gaur egun emakumeak nagusi diren sektoreak ikertu ditzakezu.



- 3 **Ikerketa:** Ikasle talde bakoitzak ikerketa txiki bat egin beharko duzue, aurrez identifikatu dituzuen ogibide horietako baten inguruan. Horretarako, erabili **'Sakontzeko baliabideak'** atalean eman zaizkizun informazio-iturri eta artxibategiak. Ondorengo puntuak jarraitu ditzakezu zure ikerketa bideratzeko:

Ikerketaren izenburua: "Donostiako Andre zigarrogileak. Historia eta eragina gizartean"

1. Sarrera:

- Ikertutako ogibidearen deskribapen laburra.
- Ogibidearen kontextu historiko eta soziala.

2. Lanaren deskribapena

- Emakumeen egindako jarduera eta zeregin espezifikoetako buruzko xehetasunak.
- Erabilitako tresnak edo teknikak.
- Lan-baldintzak (lanaldiak, soldatak, lan-giroa).

3. Emakume langileen profila

- Nortzuk ziren lan hori egiten zuten emakumeak? (jatorria, klase soziala, hezkuntza-maila, batz besteko adina, etab.).
- Zer eginkizun betetzen zuten emakume horiek beren familietan?

4. Eragina gizartean eta ekonomian

- Zergatik da esanguratsua? Lan horrek tokiko ekonomiari egindako ekarpenak.
- Emakumeen eta haien familien bizitzan dituen ondorioak.
- Lan honekin lotutako gizarte-aldaketak.

5. Zailtasunak eta erronkak

- Emakumeek lan horretan izan zituzten arazo edo oztopoak (diskriminazioa, prekariedadea, arriskuak).

6. Errekonozimendua eta ondarea

- Historikoki aitortu al da lan horren garrantzia?
- Zer geratzen da gaur egun hirian utzitako ondare horretatik? (eraikinak, eskulturak, kale-izenak, oroimenezko-plakak, erakusketak, etab.).

7. Ondorioak

- Taldearen iritzia lan horrek hiriaren historian izan duen paperari buruz.
- Zein faktore historiko-sozialek eragin ahal izan dute emakumeen aitortza publikoa mugatua izatea?

8. Erreferentzia bibliografikoak

- Kontsultatutako iturrien zerrenda (artikuluak, liburuak, elkarrizketak, etab.).

- 4 **Aurkezpena sortu:** gainontzeko taldekideei zuen ikerketa aurkezteko sortu aurkezpen digital bat (formatua zuk aukeratu: posterra edo hainbat diapositibadun aurkezpena).

Argazkiak, artikulak, testigantzak... bilatu eta antolatu, zure aurkezpena osatzeko.

Jarraian txantilo digital editagarria aurkezten zaizu:

Posterra sortzeko txantilo digitala. (Google Slides)



Andre zigarrogileak



Tabakalerako langileak. Iturria: www.tabakalera.eus/eu/nortzuk-gara/historia/



www.berria.eus/bizigiro/kearen-unibertsitatean-ikasitakoak



Latsariak



Arropa garbitzaileak Urumea ibaian, Loiolan. Argazkia: Pascual Marín. Iturria: kutxateka.eus [CC BY-NC 4.0]



Artikula | "Lavaderos: espacio público, genérico, de trabajo, de relaciones interpersonales. Cambios acaecidos. Guipúzcoa 1850-1950". Iturria: www.eusko-ikaskuntza.eus/PDFAnIt/vasconia/vas30/30301321.pdf



2018 maiatz eta ekaineko liburuxka. CICC - Tabakalera Iturria: makusi.tabakalera.eus/eu/artxiiboak



Tabakalerako langileen argazkiak. Kearen artxibogileak proiektua, Tabakalera. Iturria: makusi.tabakalera.eus/es/bildumak/kearen-artxibogileak/



1923an garbitegi bezala eraiki zen gaur egun Loiolako Kultur Etxea den eraikina. Argazkia: Gorka Estrada. Iturria: www.noticiasdegipuzkoa.eus/donostia/2012/10/18/lavadero-ilustrado-4358719.html



Arrain saltzaileak



Andresa Portugal eta Petri, kaleko azken arrain saltzaileak. Iturria: iruxulo.hitza.eus/2013/02/21/andresa-portugal-gogora-ekarriko-dute-parte-zaharrea/



Andresaren omenez Bretxan jarritako horma-irudia. Egilea: Arantxa Orbegozo | "Entrañables" proiektua. Iturria: eu.m.wikipedia.org/wiki/ [CC BY-SA 4.0]

Saregileak



Saregileak kaian. Iturria: www.gipuzkoa.eus/eu/web/kultura/-/saregileekin-portuan-saretzen



Arrandegi eraikina, Bretxa merkatuaren atzean, 1955. Argazkia: Paco Marí. Iturria: kutxateka.eus [BY-NC 4.0]



Arrain saltzaileak Bretxako merkatuan, 1938. Argazkia: Pascual Marín. Iturria: kutxateka.eus [BY-NC 4.0]



Saregileak sareak konpontzen kaian, 1976. Argazkia: Arturo Delgado. Iturria: kutxateka.eus [BY-NC 4.0]

Baserritarrak



Baserritarrak Bretxako merkatuan, 1986. Ramon Labaien merkatuaren inaugurazioan, honen birmoldaketaren ondoren. Argazkiak: Arturo Delgado. Iturria 1: kutxateka.eus Iturria 2: kutxateka.eus



Bretxa merkatua, 1940. Argazkia: Pascual Marín. Iturria: kutxateka.eus


Pasaiako batelariak



Pasai San Juan - batelaria. Argazkia: Fotografía Vidal. Iturria: todocoleccion.net



Pasaiako batelaria. Postala. Iturria: todocoleccion.net



Ekialde Barrutiko Berdintasun Lantaldeak emakume izena duten kaleetan jarriko atrilak eta biografien podcast-ak. Iturria: www.donostia.eus/ataria/web/ekialdeko-barrutia/podcast



Pasaiako batelariak. Blanche Hennebutte Feillet-en grabatua, 1850 ingurukoa. Iturria: pilargg.wordpress.com

#2. Zenbat emakume, hainbat ogibide.

#2.2. Jarduera

Hezkuntza eta hizkuntza.

Testuingurua eta abiapuntua:

Donostiako kaleetan badira **hezkuntzaren eta euskararen transmisioaren alde** lan handia egin zuten hainbat emakume. Emakume hauek XX. mendeko testuinguru frankistan aritu ziren lanean, askotan isilpean, etxe-eskoletan, euskaraz irakasteko eta belaunaldi berriak hezteko helburuarekin.

Kale-izendegian, Andereñoen Plazak Donostiako lehen ikastoletako emakume irakasleei omenaldia egiten die.

Amaierako ekoizpena:

Visual thinking formatuan sortutako posterra, emakume hauen **biografia eta ekarpenak** laburbilduz modu bisual batean. Poster horrek elementu grafikoak zein hitzak izango ditu (marrazkiak, ikonoak, esaldi gakoak...).

Helburuak:

- Donostiako hezkuntza-historian giltzarri izan diren emakumeen bizitza eta ondarea ezagutzea.
- Emakume hauek frankismo garaian hezkuntzaren eta euskararen transmisioaren alde egindako lanaren eragina ikertu eta baloratzea.
- Ikasleek taldeka eta modu autonomoan irakasle hauen bizitzak ikertzea.
- Sormena eta sintesi-gaitasuna garatzea, visual thinking-a erabiliz.

Maila: DBH 3-4. Batxilergoa 1-2

Denbora: 6-8 saio

Taldekatzea: banaka eta talde handian.

- Arloak:**
- [Jarduera orokorra]
 - Geografia eta Historia
 - Euskara eta Literatura
 - Hezkuntza plastikoa, ikus- eta ikus-entzunezkoa

Materialak eta baliabideak:

- Idazteko eta marrazteko materiala: (koloretako eta lodiera ezberdinetako errotulkiak barne).
- A3 formatuko orri zuri edo kartulinak
- Visual Thinking / Mapa mentala adibidea
- [III ERANSKINA] irakaslearentzako

Sakontzeko baliabideak:

Hezkuntzaren historia Euskal Herrian:

1. Artikulua: “Donostiako ikastolen sorrera”. | www.euskonews.com

Autorea: Ainara Iraeta.

2. “Euskal Eskolaren hastapenak” | www.euskara.euskadi.net/appcont/sustapena/datos/eiraka.pdf

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza.

Lehenengo ikastolen sorreran emakumeen garrantzia azpimarratzen da lan honetan, nabarmenduz: Elbira Zipitria, Elisabete Maiztegi, Maria Dolores Goya, Maritxu Barriola, Pilar Sansinenea, Faustina Karril...

3. Emakumeak eta euskal hezkuntza. Etxe eskolak: emakumeek burututako biziraupen hezkuntza |

aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/eu/emakumeak-eta-euskal-hezkuntza

Aunamendi Eusko Entziklopedia.



Umearren laguna: irakurtzen ikasteko biderik errezena. Eusko-ikaskuntzak argitaratua (1931). Lopez Mendizabal, Isaac. Txiki-ren marrazkiak. Iturria: bvpb.mcu.es/eu

Elbira Zipitria



1- Elbiraren etxea, ikastola bihurtuta. | 2- Orixe ikastola.
Iturria: www.euskerazaleak.biz/PDF/idazleak/ElbiraZipitriaAndereinoa.pdf

Karmele Esnal



ARGIAn elkarrizketa, 1999.
Iturria: www.argia.eus/fitx/bestela-koak/esnal.pdf




Biografia eta informazioa Añamendi Eusko Entziklopidian. Iturria: anamendi.eusko-ikaskuntza.eus/eu/esnal-zulaika-karmele



Biografia eta informazioa Añamendi Eusko Entziklopidian. Autorea: Xabier Aranburu.
Iturria: anamendi.eusko-ikaskuntza.eus/eu/zipitria-irastorza-elbira




Elbira Zipitria, lehenengo euskarazko eskola martxan jarri zuena. EITB. Iturria: www.youtube.com/watch?v=JBNJScdcDF0




BIDEGILEAK. Eusko Jaurlaritzak argitaratua.
Iturria: www.euskadi.eus/appcont/sustapena/datos/ZIPITRIA.pdf



Dokumentala: Elbira. EITB. Iturria: <https://www.eitb.eus/eu/nahieran/dokumentalak/elbira/5619/>



Euskaltzaindiaren lan eta agiriak (407 - 419 orriak) Autorea: Miren Azkarate.
Iturria: www.euskaltzaindia.eus/dok/euskera/euskera_2012_1-2.pdf



Maria Dolores Goia



Andereño Weston Manor artikulua. Iturria: noticiasdegipuzkoa.eus



Biografia eta informazioa. Iturria: euskara.euskadi.net



Maria Dolores Goya ikastolako haurrak, 1956. Iturria: wikimedia



Maria Dolores Goiari omenaldia Intxaurren. Iturria: donostia.eus



Biografia eta informazioa. Autorea: Xabier Aranburu. Iturria: eusko-ikaskuntza.eus


Elisabete Maiztegi



Biografia eta informazioa. Iturria: euskara.euskadi.net

Jarduerarako jarraibideak:

- 1 **Abiapuntua:** Donostiako kale-izendegia aztertu, eta bertan aitortza egiten zaien **emakume irakasleak** zeintzuk diren identifikatu (talde handian).
Zein espazio edo elementu-mota eskaini zaie bakoitzari? Kaleak, plazak, eraikinak, eskulturak...
- 2 **“Donostiako Ikastolen sorrera” artikulua** irakurri, ondoren emakumeen biografiak lantzeko testuinguruan kokatzeko. Informazio gehiagorako, sakontzeko baliabideen atalean beste artikulua eta baliabideak dituzu.
- 3 **Ikerketa:** Ikasle bakoitzari emakume irakasle bat esleituko zaio, honen historia eta biografia aztertu eta landu beharko dituelarik: Elbira Zipitria, Karmele Esnal Zulaika, María Dolores Goia eta Elisabete Maiztegi. Horretarako, erabili **‘Sakontzeko baliabideak’** atalean eman zaizkizun informazio-iturriak.
- 4 **Posterra sortu, Visual Thinking formatuan**, emakume hauen biografia eta ekarpenak modu bisual, sortzaile eta sintetiko batean azaltzeko.



Helburu horrekin, Visual Thinking formatuan **elementu grafikoak** erabiltzen dira informazioa antolatu, nabarmendu, eta erakargarri egiteko: sinboloak, geziak, zerrendak, binetak, piktogramak, ilustrazioak, denbora-lerroak, mapa mentalak, tipografia anitzak, etab.





Mapa mental baten adibidea, egitura zirkularra.

Posterrean, **ondorengo atalak** landu ditzakezu:

1. Izen-abizenak eta laburpen-esaldi bat edo hitz gakoak. (Adibidez: "Irakaslea eta euskaltzalea").

2. Biografia:

- Jaioturtea eta lekua.
- Lanbidea/jardun-eremua.
- Bere bizitzako gertaera gakoak. Pertsonalak, sozialak, historikoak, etab. Denbora-lerro batean antolatu ditzakezu, urteka.
- Zer arrisku edo zailtasun izan zituen, garaiko kontextu historiko eta soziala kontutan hartuta.

3. Ekarpinak:

- Zer ekarpen egin zizkion hezkuntzari eta euskarari.

4. Errekonozimendua eta omenaldiak:

- Emakume honen memoria eraiki eta kontserbatzeko egin diren ekintzak, elementuak, izendapenak edota bestelakoak. (Adibidez: dokumentalak, eskulturak, argitalpenak, etab.)

5. Posterren aurkezpenak talde txikietan. Emakume desberdinak landu dituzten ikasleek lauko taldea osatu, eta batak besteari egindako lana aurkeztuko die.

6. Emakumeei buruzko galderak erantzutea eta hausnarketa partekatua.

Azkenik, lauко talde hauetan, ondorengo galderari erantzun: - Irakasleak ikus **[III ERANSKINA]** -

1. Zer ekarpen egin zioten emakume hauek euskarari eta euskal hezkuntzari?

2. Zer nolako erronkak izan zituzten beren garaian euskararen eta hezkuntzaren alde lan egiteko?

3. Zein eragin izan zuen haien lanak euskal gizartearen bilakaeran?

4. Zergatik dira emakume hauek berdintasunaren eta gizartearen eraldaketaren eredu?

5. Aitortza espazio publikoan.

5.1. Zergatik darama Elbira Zipitriaren izena Donostiako kale batek eta EHUko eraikin batek? Zer lotura dute izendapenek espazio horien funtzioarekin? Esango zenuke espazioek memoria gordetzen dutela? Azaldu.

5.2. Kale-izendegian ageri ez diren eta Donostian irakasten aritu ziren beste emakumerik ezagutzen al duzu? Loturarik izan al zuten aztertu dituzun emakumeekin?



BIZITZA




1906

ZUMAIAN JAIO ZEN, FAMILIA KARLISTA BATEAN.



EUSKARAREN IRAKASKUNTZAN IRAKASLE GAZTEAK PRESTATZEN JARRAITU ZUEN ETENGABE 1968RA ARTE.

KARMELE ESNAL ETA BESTE HAINBAT EMAKUMEK BERE EREDUA JARRAITUZ, IKASTOLA BERRIAK SORTU ZITUZTEN.



1922

LEHEN HEZKUNTZAKO MAGISTERITZA ESKOLAN IKASTEN HASI ZEN.

1926

IRAKASLE TITULUA LORTU ETA IKASKETA ZENTRO EUSKALDUN BATEAN HASI ZEN LANEAN. EUSKARAZKO IRAKASKUNTZA AKTIBITATE POLITIKO-KULTURALAREKIN UZTARTU ZUEN.

1968

IKASTOLEN EGOERA LEGEZTATZEKO BEHARRA EZARRI ZEN. Ordurarte euskal irakasleak beren lana klase pribatuen moduan estaltzen zuten, tituludun irakasle batek hamar ikasletik beherako talde bati irakastea baimendua zegoen.

1970

ORIXE IKASTOLAREN IREKITZE-BAIMENA JASO ZUEN ELBIRA ZIPITRIAK, BESTE LAU IRAKASLE, GURASO ETA EUSKALDUN KOMUNITATEAREN HAINBAT KIDEREKIN BATERA.



1936

GERRA ZIBILAK ZIPITRIA LAPURDIN ERBESTERATZEA BEHARTU ZUEN.



1939

GERRA ZIBILA BUKATUTAKOAN, DONOSTIARA ITZULI ZEN.




1943

DONOSTIAKO ETXE PARTIKULAR EZBERDINETAN EMATEN ZITUEN KLASEAK.

1946

1946TIK AURRERA FERMIN CALBETON KALEAN ZEUKAN BERE ETXEAN EMAN ZITUEN KLASEAK, ERDI-EZKUTUAN, 10 HAUR EUSKALDUNEKIN.



1950

1950EKO HAMARKADAN SISTEMA PEDAGOGIKO BERRITZAILERAK LANTZEN JARRAITU ZUEN, ETA IKASTOLEN OINARRIAK EZARRI.



ELBIRA ZIPITRIA

HEZKUNTZA ETA EUSKARAREN ALDE

EUSKARA ETXE ESPARRUTIK HEZKUNTZARA ERAMAN ZUEN LEHENENGOETARIKOA.

IKASTOLEN SORRERA INFORMAL ETA EZKUTUAREN AITZINDARIA.

ANDEREÑO EREDUA SORTU ZUEN: EMAKUME IRAKASLEAK, HIZKUNTZAREN ZAINDARI.

EKARPENAK

ERREPRESIO GARAIAN ERE EUSKARA ETA EUSKAL KULTURA TRANSMITITZEKO MODUAK ASMATU ZITUEN.

Iturria: AUÑAMENDI EUSKO ENTZIKLOPEDIA

#3. Memoria historikoa bizirik, arteen bidez.



Bloke honetan ondorengo jarduera topatuko duzu:

#3.1. Jarduera

Emakumeen memoria eta presentzia hirian, arte-adierazpenen bidez.

#3. Memoria historikoa bizirik, arteen bidez.

#3.1. Jarduera

Emakumeen memoria eta presentzia hirian, arte-adierazpenen bidez.

Testuingurua eta abiapuntua:

Arte adierazpenk hirian

Hiriko arte-adierazpenek -eskultura, horma-irudi, zein bestelakoek- emakumeen historia ikusarazteko, espazio publikoa eraldatzeko eta gizonak nagusi diren irudikapen tradizionalai kontra egiteko duten ahalmena esanguratsua da. Horrela azaltzen du Alba María Gómez arte historialariak **“Hormek hitz egiten dutenean: muralismoa memoria kontrahegemonikoak (des)eraikitzeke tresna gisa”**⁴ artikuluan. Sakon aztertzen du horma-irudiek hirian memoria ez-hegemonikoak nola eraikitzen dituzten eta nola ikusezin bihurtutako emakumeak eta kolektiboak irudikatzen dituzten. Donostian, hainbat horma-irudi zein eskultura topa ditzaiegu auzoetan barrena, oraindik ere emakumeen errepresentazioa dutenak gutxiengo badira ere.

Emakume artistak

Historian zehar, emakume artista askoren lana baztertu edo ikusezin bihurtu da, eta haien ekarpenak ez dira behar bezala aitortu. Artearen kontakizun ofizialetan, gizonen izenak nagusitu dira, eta emakume sortzaileen ahotsak gutxietsita geratu dira. Hala ere, emakume askok artearen bidez beren ikuspegi adierazi dute, eta kolorea, forma eta sormena erabiliz beren presentzia aldarrikatu dute.

Amaierako ekoizpena:

Eskola espazioan horma-irudia kolektiboa sortu, emakume artista esanguratsu bat edo batzuk irudikatuz.

Helburuak:

- Hiriko arteak eta muralismoak adierazpen sozial eta hezitzaierako tresna gisa duten zeregina ulertzea.
- Espazio publikoak emakumeen memoria nola irudika (edo isilaraz) dezakeen hausnartzea.
- Tokiko historian garrantzitsuak diren emakume artisten biografia eta lanak ezagutzea.
- Baliabide artistikoak eta sinbolikoak erabiltzea ideia bat komunikatzeko.
- Prozesu digital zein eskuzkoak baliatuz, eskolan horma-irudi bat egitea, ikas-komunitatearentzako espazio bat eraldatuz.
- Elkarlana sustatzea, sormen-prozesu bat taldean aurrera eramanez.

4 | Gómez Barros, A. M. (2022). Cuando los muros hablan: el muralismo como herramienta de (de)construcción de memorias contrahegemónicas. Cuadernos de Arte de la Universidad de Granada, 53, 189-202. Iturria: revistaseug.ugr.es/index.php/caug/article/view/24722

Maila: DBH 3-4. Batxilergoa 1-2

Denbora: 12 saio

Taldekatzea: binaka eta talde handian.

Arloak: Adierazpen artistikoa
Artearen Historia

Materialak eta baliabideak:

- Idazteko eta marrazteko materiala.
- Irudiak editatzeko softwarea (Photopea)
- Tenperak.
- Eskola barruko edo patioeko horma bat.
- Zeloak, guraizeak edo cutter-a.
- Plastifikatzeko materiala, aukeran.

Sakontzeko baliabideak:

1. Artikulua: “Hormek hitz egiten dutenean: muralismoa memoria kontrahegemonikoak (des)eraikitzeke tresna gisa”. | revistaseug.ugr.es/index.php/caug/article/view/24722/24600

Autorea: Alba Gómez Barros.


2. Donostiako Eskulturen Atlas, San Telmo Museoa. | www.santelmomuseoa.eus/atlas

3. “La Roldana” proiektua, Artearen Historia berrikusteko plataforma. | asociacionlaroldana.com

Elkarte honek emakume artistak Hezkuntza curriculumetan sartzeko helburuarekin egiten du lan, historian zehar ahaztuak edo ezabatuak izan diren horien memoriak eta egiletzak aitortzeko, eta belaunaldi berriek historia oso bat jaso dezaten.



La Roldana. Artearen Historia berrikusteko plataforma. Iturria: www.youtube.com/watch?v=iaXpEQD2OYI



@she_painted_that "A place to celebrate women artists". Iturria: @she_painted_that tiktok erabiltzailea





Jarduerarako jarraibideak:

1 Abiapuntua: Ondoko argazkiak begiratuta, jakingo al zenuke horma-irudi, eskultura edo atril bakoitzean omenutako emakumea zein den asmatzen?

Zein auzotan dagoen kokatuta?

Zein da autoreak?


Talde-handian egin saiakera.

Ezagutzen al duzu zure auzoan edo inguruan, ondoko irudietan azaldu ez den:

- horma-irudirik?
- eskulturarik?
- omenaldi-atril edo plakarik?
- bestelako arte-adierazpenik?

Ezagutzen ez dituzuenak osatzeko, [Donostiako Eskulturen Atlasa](#) (San Telmo Museoa) baliatu dezakezue, eta baita Mapandreak mapa ilustratua ere.

Era berean, Ekialdeko Barrutiko Berdintasun Lantaldeak, emakume desberdinen omenez sorturiko atrilak ezagutu ditzakezue jarrain: [Omenaldi-atrilak](#) eta [Biografiak podcast](#)-ak hemen entzungai.



Donostiako Eskulturen Atlasa. San Telmo Museoa. Iturria: www.santelmomuseoa.eus/atlas

Eskulturak



(?)



(?)



(?)



(?)



(?)



(?)



(?)

Omenaldi-atrilak



(?)



(?)

Horma-irudiak



(?)



(?)



(?)



(?)



(?)



(?)



2 Horma-irudiaren diseinua: hiriko arte-adierazpenak ezagutu ondoren, zuen horma-irudi propioa diseinatu, binaka. Gelan sortzen diren diseinu guztietatik, bukaeran bat hautatu eta gauzatzea da helburua.

Horma-irudi bat sortzeko hainbat aukera daude: jarraian, **hainbat irudiren arteko fusio** bat egitea proposatuko zaizu, horretarako honako **prozesua** jarraituz: alde batetik, **hondoa** sortu, eta bestetik, **figura**.

a HONDOA sortzeko: bi irudi hautatu, eta fusionatu.

Collage digital bat baillitza, bi irudi originaletatik hirugarren konposizio berri bat lortzen da.

Irudiak editatzeko softwarea beharko duzu ([Photopea](#)). Bi emakume artisten lanak hautatu ditugu:

A IRUDIA

MENTXU GAL,
margolari irundarra.
Paisaia eta erretratua landu zituen bereziki, koloreagatik zuen erakarpena landuz bertan.

Iturria: [fundacionmenchugal](#)



B IRUDIA

SONIA DELAUNAY,
artista errusiar-frantsesa.
Kolore biziak eta arte abstraktua uztartu zituen. Orfismoaren sortzaileetako bat izan zen.

Iturria: [composition.gallery](#)



© Pracusa


A+B



b FIGURA sortzeko: artisten argazkietan oinarrituz, hauen ingeradak marraztu.



c Esku-hartzea egingo den horma neurtu, eta **horma-irudia dimentsionatu.**




d Murala eraikitzeko **MOSAIKO TEKNIKA** erabiliko dugu.

Tesela bakoitza dimentsionatu eta **tenperarekin margotu,** koloreak gainjarrit. Ikasle bakoitza pieza bat egiteaz arduratuko da, ondoren mosaikoa denen artean osatzeko.



e Amaierako diseinu posible bat: hondoa eta figura bateratuta. Figura osatzen duten lerroak, mosaikoaren gainean errepikatuz, konposizio ezberdinak sor daitezke.



f Muntaia:
Tesela bakoitza modu indepentean plastifikatu. Figurarekin ere gauza bera egin. Azkenik, bata bestearen gainean muntatu ditzakezu, horma-irudia osatuz.

Eskulturak



Thierry Clouet



Berreraikuntza

Dora Salazar Romo-ren eskultura

Alde Zaharrean kokaturiko eskulturak, 1813ko setioaren eta sutearen ondoren hiria berreraiki zuen gizarte zibila irudikatzen duen emakumezko figura erakusten du, buruan adreiluz betetako saskia duelarik.

www.santelmomuseoa.eus/atlas



San Telmo Museoa



Gladysen omenez

Xabier Laka-ren eskultura

Gladys del Estal Ferreño donostiar ekologista erahilaren omenez eginiko obra. Egiako Cristina Enea - herritar askok Gladys Enea bezala izendaturiko - parkean kokatuta.

santelmomuseoa.eus/atlas



San Telmo Museoa



Venus

1862. urteko marmolezko eskultura. Erdialdeko Erregina Erregentearen kaleko lorategietan kokaturik, Venus irudikatzen du, maitasunaren jainkosa.

santelmomuseoa.eus/atlas



San Telmo Museoa



Latsaria

Dora Salazar Romo-ren eskultura

Latsariaren plazan kokaturiko eskultura: latsari baten irudia, garbitzeko ohola aurrean duela, errekarara begira. Urumea ertzean, eta bereziki Loiolan, latsatzea ohiko zeregina izan zen hainbat emakumerentzat.

www.santelmomuseoa.eus/atlas



B. Klimowicz



Duala

A. Mateos eta T. Villanueva-ren eskultura

Alde Zaharreko Ijentea kalean kokaturik, Donostiako hiriaren profila irudikatzen duen eskultura. 400 zuloek Gerra Zibilean eta frankismo garaian hildako gizon eta emakumeak omentzen dituzte.

santelmomuseoa.eus/atlas



San Telmo Museoa



Emakume dantzariak

XX. mendeko 1. laurdeneko marmolezko eskultura. Groseko Frantzia Pasealekuaren hasieran kokaturik, hiru emakumeren figurak irudikatzen ditu, dantzan eta musika-tresnak jotzen.

santelmomuseoa.eus/atlas



esculturaurbanaaragon.com



Batelariak

Pasaian kokaturiko eskultura, badian zehar XX. mendera arte merkantziak eta pertsonak garraiatzen eta itsasontziak atonien eramatzen lan egiten zuten batelarako omenduz.

wikipedia.org/wiki/Batelariak



San Telmo Museoa



Katalina Erauso

M. Etxeberria eta X. Cruz-en eskultura

Miramar parkean, antzina Antiguako Domingotarren Komentua egon zen lekuan jarritako bustoa. Katalina Erausok 11 urte eman zituen komentu horretan, eta 15 urterekin ihes egin zuen.

santelmomuseoa.eus/atlas



-



Urketaria

Nino Barriuso-ren eskultura

2020ean Sarriegi plazako eskultura multzoa osatu zen, danborjole eta Sarriegiren piezei urketariaren eskultura gehituz. Antzina kaleetan zehar ura zeramaten emakumeak irudikatzen ditu.

donostia.eus



elbolintxies.wordpress.com



Clara Campoamor-i omenaldia

Dora Salazar Romo-ren eskultura

Kontxa pasealekuan kokaturik, Clara Campoamorri omenaldia Emakundeek enkargatu zuen obra, Espainian emakumeek boto eskubidea lortu zuteneko 80. urteurrenean.

santelmomuseoa.eus/atlas



San Telmo Museoa



Maria Cristina erregina

Jose Díaz Bueno-ren eskulturak

Erreginari omenez bi eskultura: Amarako parkean lehenengoa (1918an egina, "El Pueblo Vasco" Egunkariak sustatuta) eta Ondarretako lorategietan bigarrena (1942. urtean, Udalaren kontura).

santelmomuseoa.eus/atlas



San Telmo Museoa



Nagore Otaño

Mercedes Rodríguez Elvira-ren eskultura

2007ko abuztuaren 12an, zaldi lasterketa batean istripuz hil zen Nagore Otaño amazonaren omenez zaleek sustarik sorturiko bustoa. Zubietako hipodromoan kokatuta dago.

santelmomuseoa.eus/atlas

Horma-irudiak



* **Latsariak**
Eva Menaren horma-irudia

Loiolan, Urumea ibaitik gertu, ibai ertzean lan egiten zuten arropa garbitzaileen lana ikusarazten du.

📷 Eva Mena @den_XL 🔗 evamena.com



* **Erreka Mari eta urrezko orrazia**
Lidia Caoren horma-irudia

Urumea ibaiaren ondoan, 'Martutene Apain' proiektuaren baitan sorturiko muralak, Euskal Mitologiako Erreka Mari irudikatzen du.

📷 @lidia.cao



* **Emakume pilotaria**
Xoana Almar eta Miguel Peralta

'Bidebieta Apain' proiektuaren baitan auzoko frontoian eginiko emakume pilotari baten horma-irudiak, emakumeek pilotan izan dituzten oztopoak gogorarazten ditu. Maite Ruiz Larramendiren jokalariaen testigantzan inspiratuta dago: urteetan ez zieten esku-pilotan jokatzeko uzten, eta kirolaren maskulinizazioak profesionalizazioa zaildu zuen.

📷 @xoanaalmar eta @elmiguelperalta



* **Lamiak eta jostunak**
GeroArte kolektiboa |
Claudia Pennese, Iñigo Hernandez

Ondarretako 'La Sirena' aterpetxean, lamia bat eta ilea josten dioten jostunen irudia, eraikinaren iragana -kortseen fabrika- gogoraraziz.

📷 @geroarteb 🔗 donostia.eus 🔗 bideoa



* **Amona**
Marina Capdevilaren horma-irudia

'Martutene Apain' proiektuaren baitan sorturiko murala Adinaren estereotipoak hausten dituzten muralengatik ezaguna da artista, emakume adinduak musa gisa erabiliz.

📷 @marinacapdevila



* **Donostia Apain proiektua**
Donostia Kultura + hainbat artista

Emakumeen irudiak azaltzen dituzten hainbat horma-irudi egin dira azken urteotan hirian. Hemen batzuk: lehena Udane Juaristirena, 'Martutene Apain' proiektuaren baitan sorturikoa. Bigarrena Mr. Sortwo artistarena, 'Altza Apain'-en baitan.

📷 @udatxo

📷 @sortwo



* **Sahara, 40 urte deserrian**
Jon Landaren horma-irudia

Sahararekiko elkartzasuna adierazteko eginiko murala, Jon Landa artistak Javi Julioren argazki batean oinarrituta diseinatuta. Tabakalera ondoan dago ikusgai.

📷 jonlanda.com 🔗 donostia-eus



* **Andresa Portugal**
Arantxa Orbegozoren panela

Donostiako Udalak Bretxako azken arrain saltzailea izan zen Andresa omentzeko jarritako panela, Entrañables proiektuaren baitan. Merkatuaren obren ondorioz, panela kendu egin zen.

📷 @orbegozoart



* **Horma-irudi ekofeminista**
Jone Taberna, Calcuta Ondoan

Emakumeen indarra eta naturaren eskubideen aldeko konpromisoa ospatzeko Intxaurren ondoan eginiko murala.

📷 @jonetaberna 🔗 @irutxulokohitza



* **Ainara Alkortaren horma-irudia**

2022ko Aste Nagusian, Donostiako Piratetako Sardiñerek Ainara Alkorta artistaren eskutik horma-irudi berri bat kokatu zuten leku berean, merkatuko fatxadan, Andresa berriro gogoratzeko.

📷 @ainaralkorta

Atrilak

Hainbat emakumeren omenez atrilak daude kokaturik auzo desberdinetan. Jarraian, hauetariko batzuk:


Nor-nai



Carmen Burgos Colombine



Altzako milizianoak



Maria Dolores Goia



🔗 irutxulo.hitza.eus

Erreferentziak eta bibliografia.

Erreferentziak

- Col·lectiu Punt 6. (2019). Urbanismo feminista: Por una transformación radical de los espacios de vida. Virus. https://www.punt6.org/wp-content/uploads/2022/04/libro_Urbanismo-feminista_ES.pdf
- Col·lectiu Punt 6 & Coeducació. (2020). Patios coeducativos. Guía para la transformación feminista de los espacios educativos. Virus. <https://www.punt6.org/es/books/patios-coeducativos/>
- Del Valle, T. (1991). Las mujeres en la ciudad: Estudio aplicado de Donostia. Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Eusko Jaurlaritza (2023). 77/2023 DEKRETUA, maiatzaren 30ekoa, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculum zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena. <https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2023/06/2302729e.pdf>
- Eusko Jaurlaritza (2023). 76/2023 DEKRETUA, maiatzaren 30ekoa, Batxilergoaren curriculum zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena. <https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2023/07/2303570e.pdf>
- Eusko Jaurlaritza. Agenda Euskadi 2030, Garapen Jasangarriko Helburuak (GJH). https://programa.irekia.euskadi.eus/eu/sustainable_dev_goals
- Equal Saree. (2019). El patio de la escuela en igualdad. <https://equalsaree.org/es/mediateca/>
- La Roldana Elkarte. (d. g.) La Roldana, Artearen Historia berrikusteko plataforma. <https://asociacionlaroldana.com/>
- San Telmo Museoa. (d. g.) Emakumeen kalejira. https://www.santelmomuseoa.eus/uploads/Actividades/Secundaria/Emakumeen_kalejira.pdf
- San Telmo Museoa. (d. g.) Donostiako eskulturen atlas. www.santelmomuseoa.eus/atlas

Baliabide kartografikoak eta datu-base irekiak

- Donostiako Udala. (d. g.) Donostiako Kale Izendegia (Open Data Donostia). <https://www.donostia.eus/datuirekiak/katalogoa/kaleizendegia>
- Donostiako Udala. (d. g.) Emakumeon Donostia: mapa digitala. https://www.donostia.eus/info/ciudadano/igualdad_plan.nsf/voWebContenidosId/NT000009BA?OpenDocument&idioma=eus&id=A374066376363&cat=&doc=D
- Donostiako Udala. (d. g.) GeoDonostia: bisore kartografikoa. <https://www.donostia.eus/ataria/eu/web/geodonostia/bisorea>
- Donostiako Udala. (d. g.) Hirigintza eta Kartografia. https://www.donostia.eus/info/ciudadano/urbanismo_cartografia.nsf

Artikulu eta aldizkariak

- Alberdi Erice, M. J., & Manrique Sáez, M. P. (2000). Lavaderos: Espacio público, genérico, de trabajo, de relaciones interpersonales. Cambios acaecidos. Guipúzcoa, 1850-1950. Vasconia. Cuadernos de Historia-Geografía, 30, 301–321. <https://www.eusko-ikaskuntza.eus/PDFAnlt/vasconia/vas30/30301321.pdf>
- Aranburu Puente, X. (1990). Hezkuntzaren historia Euskal Herrian: Ikastola. María Dolores Goya (Gros-eko ikastola). Cuadernos de Sección. Educación, 3, 197–225. <https://www.eusko-ikaskuntza.eus/argitalpenak/hezkuntzaren-historia-euskal-herrian-ikastola-maria-dolores-goya-gros-eko-ikastola/art-11645/>
- Aranburu Puente, X. (d. g.). Zipitria Irastorza, Elbira. Auñamendi Eusko Entziklopedia. Eusko Ikaskuntza. <https://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/eu/zipitria-irastorza-elbira/ar-147407/>
- Argia. (1999). Karmele Esnal. Elkarrizketa. <https://www.argia.eus/fitx/bestelakoak/esnal.pdf>
- Auñamendi Eusko Entziklopedia. (d. g.). Emakumeak eta euskal hezkuntza. Etxe eskolak: emakumeek burututako biziraupen hezkuntza. Eusko Ikaskuntza. <https://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/eu/emakumeak-eta-euskal-hezkuntza/ar-153969-142726/>
- Auñamendi Eusko Entziklopedia. (d. g.). Esnal Zulaika, Karmele. Eusko Ikaskuntza. <https://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/eu/esnal-zulaika-karmele/ar-41462/>
- Campos Santacana, M. K., & Rodríguez Zamarreño, L. (2001). El trabajo femenino en San Sebastián. Euskonews & Media, (106). <https://www.euskonews.eus/0106z/bk/gaia10601es.html>
- Campos Santacana, M. K., & Rodríguez Zamarreño, L. (2000). El papel de las mujeres donostiaras en los siglos XIX y XX. Vasconia. Cuadernos de Historia-Geografía, 30, 447–456. <https://www.eusko-ikaskuntza.eus/es/publicaciones/el-papel-de-las-mujeres-donostiaras-en-los-siglos-xix-y-xx/art-14160/>
- Cantín, R. M. (1995). Bateleras de Pasajes. Cuadernos de Sección. Historia-Geografía, 23, 55–90. Eusko Ikaskuntza. <https://www.eusko-ikaskuntza.eus/PDFAnlt/vasconia/vas23/23055090.pdf>
- Gómez Barros, A. M. (2022). Cuando los muros hablan: el muralismo como herramienta de (de)construcción de memorias contrahegemónicas. Cuadernos de Arte de la Universidad de Granada, 53, 189–202. <https://revis-taseug.ugr.es/index.php/caug/article/view/24722>
- Iraeta, A. (2000). Donostiako ikastolen sorrera. Euskonews & Media, (67). <https://www.euskonews.eus/0067z/bk/gaia6704eu.html>



Kazetaritza-artikuluak

- Alonso, C. (2012ko urriaren 18a). Un lavadero muy ilustrado. Noticias de Gipuzkoa. <https://www.noticias-degipuzkoa.eus/donostia/2012/10/18/lavadero-ilustrado-4358719.html>
- Donostiako Udala (2021eko ekainaren 11a). Emakumeek Donostiako bizitzan egin duten ekarpena. <https://www.donostia.eus/home.nsf/0/87AD561470C-DA21AC12586800030BFD2?OpenDocument&id-oma=eus>
- Imaz, J. (2012ko maiatzaren 19a). Andereño Weston Manor. Noticias de Gipuzkoa. <https://www.noticias-degipuzkoa.eus/actualidad/2012/05/19/andere-no-weston-manor-4394821.html>
- Jimenez Larrea, A. (2023ko irailaren 28a). "Kearen unibertsitatean" ikasitakoak. Berria. https://www.berria.eus/bizigiro/kearen-unibertsitatean-ikasitakoak_1342558_102.html
- Lizarralde, N. (2013ko otsailaren 21a). Andresa Portugal gogora ekarriko dute Parte Zaharrean. <https://irutxulo.hitza.eus/2013/02/21/andresa-portugal-gogora-ekarriko-dute-parte-zaharrean/>

Artxibo eta dokumentazio historikoa

- Euskaltzaindia. (2012). Euskera (vol. 57, 1–2). https://www.euskaltzaindia.eus/dok/euskera/euskera_2012_1-2.pdf
- Eusko Ikaskuntza. (d. g.). Auñamendi Eusko Entziklopedia. <https://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/>
- Eusko Ikaskuntza (d. g.) Multimedia fondoak. <https://www.eusko-ikaskuntza.eus/eu/dokumentu-fondoak/multimedia-fondoak/>
- Eusko Ikaskuntza (d. g.). Vasconia. Cuadernos de historia-geografía. <https://www.eusko-ikaskuntza.eus/es/publicaciones/vasconia-cuadernos-de-historia-geografia/bi-770/>
- Eusko Jaurlaritza. (d. g.). Zipitria: Elbira (Bidegileak Bilduma). https://www.eusko-ikaskuntza.eus/PDFAnlt/bidegileak/173_zipitria.pdf
- Eusko Jaurlaritza. (d. g.). Euskal eskolaren hastapenak. <http://www.euskara.euskadi.net/appcont/sustapena/datos/eiraka.pdf>
- Kutxateka. Argazki artxibo historikoa. <https://kutxateka.eus/>
- Makusi, Tabakalerako ikus-entzunezkoen eta dokumentuen artxiboa. <https://makusi.tabakalera.eus/eu/>
- Muniategi, S. (d. g.). Zipitria'tar Elbire andereinoa. <https://www.euskerazaleak.biz/PDF/idazleak/Elbire%20Zipitria/Zipitria%27tar%20Elbire%20Andereinoa.pdf>
- Gipuzkoako Foru Aldundia. Aintzinako lanbideak. <https://www.gipuzkoa.eus/eu/web/aintzinako-lanbideak>
- Tabakalera, Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroa. (d.g.). Eraikinaren historia. <https://www.tabakalera.eus/eu/nortzuk-gara/historia/>

Ikus-entzunezko baliabideak eta dokumentalak

- Col·lectiu Punt 6. (2016). ¿Qué es el urbanismo feminista?. [Bideoa]. <https://www.youtube.com/watch?v=dl-4TOCPMMBA&t=5s>
- Donostiako Udala, Ekialde Barrutiko Berdintasun Lantaldea (2021). Emakumeak Donostiako kaleetan. [Podcasta]. <https://www.donostia.eus/ataria/web/ekialdeko-barrutia/podcast>
- EITB. (2021). Elbira Zipitria izan zen lehenengo euskarazko eskola martxan jarri zuena. [Bideoa]. <https://www.youtube.com/watch?v=iBnJScdcDF0>
- EITB. (2023). Elbira [Dokumentala]. <https://www.eitb.eus/eu/nahieran/dokumentalak/elbira/5619>
- Emakunde & Burgoa, Z. (2023). Eskolen espazioen diagnostikoak eta moldaketa praktikoak berdintasunaren ikuspegitik. [Bideoa]. https://www.youtube.com/watch?v=vL_BU9q50gQ
- Miles de Ciudades. (2020). ¿Sexistas nuestras ciudades? Urbanismo Feminista. [Bideoa]. <https://www.youtube.com/watch?v=2t282qMwzS8>
- Montero Sánchez de las Matas, L. (Zuz.). (2023). Kearen artxibogileak: Ibilbide bat Tabakaleratik [Dokumentala]. <https://www.tabakalera.eus/eu/ikusi-irakurri-entzun/edukiak/filma-kearen-artxibogileak/>
- La Roldana. (2021) La Roldana. [Bideoa]. <https://www.youtube.com/watch?v=iaXpEQD2OYI>




Bibliografia osagarria: Hiria, generoa, memoria.


- Jane Jacobs. (1961). The death and life of great American cities. Random House.
- Dolores Hayden. (1980). What would a non-sexist city be like? Speculations on housing, urban design, and human work. Signs, 5(3), 170–187.
- Dolores Hayden. (1995). The power of place: Urban landscapes as public history. MIT Press.
- Doreen Massey. (1994). Space, place and gender. University of Minnesota Press.
- Leslie Kern. (2020). Feminist city: Claiming space in a man-made world. Verso Books.
- Inés Sánchez de Madariaga. (2004). Urbanismo con perspectiva de género. Instituto Andaluz de la Mujer.


mapandreak

GIDA DIDAKTIKOA


Eranskinak






















IX






XI



XII





● **“Emakumeen lana Donostian” artikulua** irakurri, eta ondorengo galderari erantzun.

Informazioan gehiago sakontzeko, “Emakume donostiarrek XIX eta XX mendean bete zuten eginkizuna” ikerketa-lan zabalagoa ere irakurri dezakezu.

1. Zer rol betetzen zituzten emakumeek Donostiako landa-eremuan? Baserritarrek etxe barruan zein kanpoan egiten zituzten lanak kontutan hartu.

Emakumeek etxeko berezko lanak egiten zituzten (sukaldea, garbiketa, seme-alaben zaintza), baita baratzeak landu, animaliak zaindu eta merkatuetan produktuak saldu ere.

2. Nola laguntzen zioten arrantza-sektoreko emakumeek tokiko ekonomiari? Itsasontziak portura iritsi aurretik eta ondoren egiten zituzten jarduerari buruz hausnartu.

Sareak konpontzen zituzten, arraina saltzen zuten, enkanteak antolatzen zituzten, arraina prestatzen zuten ondo kontserbatzeko.

3. Artikulua arabera, zergatik ez zen aintzatesten emakumeek nekazaritzan eta arrantza munduan egiten zuten lana? Garai hartako emakumeen lanari buruzko pertzepzio sozialean pentsatu.

Emakumeen egiten zituzten lan horiek “familiar emandako laguntza” kontsideratzen ziren, ez zeuden ofizialki erregistratuta. Gainera, eredu burgesak bigarren mailakotzat ikusten zuen lan hori.

4. Zer faktorek eragin zuten 1878an Donostia Tabako Fabrikaren kokaleku gisa aukeratzeko orduan? Kontutan hartu zigarrogileen lan-egoera eta tokiko agintarien erabakiak.

Hirian emakume asko zeuden lanerako prest, haue-tariko askok tailer txikietan egiten zuten lan tabakoa biltzen. 1876an foruen abolizioaren ondoren Estatuak ezarri zituen lege-aldaketengatik, langile hauen bizi-modua arriskuan zegoen. Tokiko agintariak, balizko gatazka sozial bat aurreikusiz, enplegu egonkorra sortu nahi izan zuten, eta fabrika hirian kokatzeko presioa egin zuten.

5. Zer eragin izan zuen Tabako Fabrika sortzeak Donostiako emakumeen lan-bizitzan? Aztertu nola aldatu zen emakumeen parte-hartzea hiriko lan-eremuan fabrika ireki ondoren.

Emakume askori independentzia ekonomikoa izateko eta lan-komunitate antolatu bat eratzeko aukera eman zien.

6. Zer nolako lanpostuak egiten zituzten emakumeek zerbitzuen sektorean Donostiako turismoaren gorakadan? Turismoari eta etxeko-zerbitzuei lotutako lanbideetan pentsatu.

Zer abantaila eta desabantaila izan zitzakeen esparru horietan lan egiteak? Turismoak lan-baldintzetan nola eragin dezakeen hausnartu.

Emakumeek hondartzetako kabinen arduradun, txartel-saltzaile, aulkien arduradun edo “mari-moldari” gisa lan egiten zuten, besteak beste. Sektoreak lan-aukerak eskaintzen zituen, baina prekaritate, urtaroen menpeko lanaldiak edo soldata baxuak ere ekar zitzakeen. Etxeko-zerbitzuetan, hainbat jardura egiten zituzten: garbiketa, sukaldea, haurren zaintza...

7. Zure iritziz, nolako bilakaera izan du emakumeen partaidetzak lan-esparruan Donostian, artikuluan deskribatutako garaietatik gaur egunera arte? Emakumeen enplegu tasak eta gaur egun emakumeak nagusi diren sektoreak ikertu ditzakezu.

Gaur egun emakumeek sektore gehiagotan egiten dute lan (hezkuntza, osasuna, zerbitzuak), eskubide gehiagorekin, nahiz eta soldatetan eta zuzendaritza karguetan desberdintasunak oraindik ere existitzen diren.





● **Emakumeei buruzko galderak erantzutea eta hausnarketa partekatua.**

Azkenik, lau talde hauetan, ondorengo galderari erantzun:

<p>1. Zer ekarpen egin zioten emakume hauek euskarari eta euskal hezkuntzari?</p>	<p>5. Aitortza espazio publikoan.</p>
<p>2. Zer nolako erronkak izan zituzten beren garaian euskararen eta hezkuntzaren alde lan egiteko?</p>	<p>5.1. Zergatik darama Elbira Zipitriaren izena Donostiako kale batek eta EHUko eraikin batek? Zer lotura dute izendapenek espazio horien funtzioarekin? Esango zenuke espazioek memoria gordetzen dutela? Azaldu.</p>
<p>3. Zein eragin izan zuen haien lanak euskal gizartearen bilakaeran?</p>	<p>5.2. Kale-izendegian ageri ez diren eta Donostian irakasten aritu ziren beste emakumerik ezagutzen al duzu? Loturarik izan al zuten aztertu dituzun emakumeekin?</p>
<p>4. Zergatik dira emakume hauek berdintasunaren eta gizartearen eraldaketaren eredu?</p>	

1. Zer ekarpen egin zioten emakume hauek euskarari eta euskal hezkuntzari?

Euskararen transmisioa eta hezkuntza integrala bermatu zuten, gerra garaiko errepresioaren aurka borrokatuz. Ikastolen ereduak sortu eta sustatu zuten, euskararen irakaskuntza berritzaile bat bideratuz.

2. Zer nolako erronkak izan zituzten beren garaian euskararen eta hezkuntzaren alde lan egiteko?

Frankismo garaiko debeku eta errepresioa, baliabide falta eta euskal kulturaren bazterketa politikoa izan ziren erronka nagusiak.

3. Zein eragin izan zuen haien lanak euskal gizartearen bilakaeran?

Euskararen eta euskal identitatearen iraupena bermatu zuten, belaunaldi berrientzat hezkuntza eredu propioak sortuz.

4. Zergatik dira emakume hauek berdintasunaren eta gizartearen eraldaketaren eredu?

Gizarte patriarkalean emakumeek eremu publikoan lekua hartu zuten, hezkuntza eta hizkuntzaren bidez gizartearen eraldaketa bultzatuz.

5. Aitortza espazio publikoan.

5.1. Zergatik darama Elbira Zipitriaren izena Donostiako kale batek eta EHUko eraikin batek? Zer lotura dute izendapenek espazio horien funtzioarekin? Esango zenuke espazioek memoria gordetzen dutela? Azaldu.

Bi kasuetan, izendapena ez da kasualitatea: biek aitortzen dute bere ekarpen historikoa hezkuntzan eta euskararen transmisioan, eta izendapenek lotura zuzena daukate espazio bakoitzaren funtzioarekin:

- Zer sinbolizatzen du kale batek bere izena izateak? Hiria memoria historikoa eta aitortza publikoa. Kalearen izena modu sinbolikoan erabiltzen da bere lanaren presentzia eta balioa hiria espazio publikoan txertatzeko.
- Zer sinbolizatzen du EHUko Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultateko eraikinetako batek bere izena izateak? Elbira Zipitria euskal hezkuntzaren oinarritzat hartzen da, eta hezkuntzari eskainitako eraikin bati bere izena ematea ikusgarritasun pedagogiko eta ideologikoa emateko modu bat da. Horrela, irakasle-goaren belaunaldi berriek bere izena eta ekarpena ezagutzeko aukera dute.

5.2. Kale-izendegian ageri ez diren eta Donostian irakasten aritu ziren beste emakumerik ezagutzen al duzu? Loturarik izan al zuten aztertu dituzun emakumeekin?

Donostian zortzi bat etxe eskola egon ziren funtzionamenduan, Zipitria 1946ean hasi zenetik 1960era: Elbira Zipitria (1946), M^a Dolores Goia (1951), Jone Forkada (1952), Karme Esnal (1953), Mari Karmen Lasarte eta Mari Karmen Mitxelena (1957) sei bederatzi urte bitarteko umeekin, eta, Itziar Artzelus (1950) eta Faustina Karril (1953) lau eta sei urte bitarteko umeekin.

 @mapandreak

 linktr.ee/mapandreak



 @mapandreak

 linktr.ee/mapandreak



mapandreak
plazaratu, maparatu